

hh
hik hasi

Enrique Martinez Reguerari
elkarrizketa

Garaiak hainbeste aldatu direlarik,
bermaturik al dauka Antzuolako
herri-eskolak bere eskola-proiektua?

Eunateko Santa Maria eliza

Miren Gorrotxategi

942



HIK HASI, GUK SEGI

Bidaia

Francesca Sanna



Tragediatik eta anabساتik ihes egin duen familia baten gorabeherak.

AURKIBIDEA

GAIA / 10

JOXE MARI AUZMENDI

Joxe Mari Auzmendi Hik Hasiren sortzaile eta bultzatzaile nagusiaren heriotzak (2017-II-13) deskribatzen zaila den hutsunea utzi du hezkuntzan, herrigintzan eta hainbat eta hainbaten bihotzetan. Sentimendu eta emozio asko eragin ditu zen bezalakoa zelako, sekula agortzen ez zen iturria. Jendetasunerako zuen dohainak, etengabeko baikortasunak eta gizartea eta mundua ikusteko zuen manerak pertsona oso berezia egin zuten. Sekulako herentzia utzi du.

ELKARRIZKETA / 28

ENRIQUE MARTINEZ REGUERA

Psikologoa, filosofoa, pedagogo eta idazlea da Enrique Martinez Reguera galiziarra, baina berak azpimarratzen duen moduan, 'denen gaintik pertsona' naiz. Urte luzez ibili da zaurgarritasun-egoeran dauden haur eta nerabeekin lanean, eta etxean hartu eta haiekin bizi izan da. Ikasi duen guztia haiek irakatsi diotela dio harrotasunez, eta haiekin elkarbizitzeko erabilitako 'trikimailuak' aipatzen ditu elkarrizketan.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Mikel Agirrezabala, Ane Aranburu, Ainhoa Azpiroz eta Ainara Gorostizu.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Joxe Mari Auzmendi, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Errion-

do, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2020-02-17).

Kopurua: 4.500 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Joxe Mari Auzmendiren hutsunea hezkuntzan, euskalgintzan eta gure bihotzetan

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Joxe Mari Auzmendi

11 Sekula agortzen ez zen iturria

20 Irria hari zuen jostuna

23 Hik Hasi, guk segi, Joxe Mari

24 Plazeretik jakin-minera

28 ELKARRIZKETA

ENRIQUE M. REGUERA:

“Pertsona bezala joanda konektatu egiten dugu; irakasle edo psikologo bezala joanda, ez”

36 GALDEIDAZU

ANDONI ARGUÑANO

Garaiak hainbeste aldatu direlarik, bermatuta al dauka Antzuolako herri-eskolak bere eskola-proiektua?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Eunateko Santa Maria eliza

42 ATZEKO ATETIK

Miren Gorrotxategi

AUPA EKIPO!



EZ DADILA HARIA ETEN

EMAN

Joxe Mari Auzmendiren hutsunea hezkuntzan, euskalgintzan eta gure bihotzetan

editoriala

EUSKARATIK ETA PEDAGOGIA AURRERAZALEETATIK EUSKAL HERRIA JOSTEN SAIATU DA HIK HASI EGITASMOAREN ARIMA IZAN DEN IRAKASLEA. OTSAILAREN 13AN HIL ZEN.

Egun on, ekipo!” Zeinen eguraldi ederra gaur; euria eta euria ari du eta hemen, bulegoan egoteko hau gozada bat da!

Egun on, ekipo! Zeinen eguraldi ederra gaur; eguzkia atera da, oinez etorri naiz eta hemen, bulegoan ederki gaude orain argitasun honekin”.

Egoera edozein izanda ere alde positiboa atera eta irribarre egiteko arrazoiak topatu izan dituzu beti, Joxe Mari. Horrelaxe ezagutu zaitunik eta esango nuke ezagutzen dudan pertsonarik baikorrena zarela, eta gainera, baikortasun hori ingurukoei transmititzeko gaitasun ikaragarria duzula. Eta horregatik, une hauetan ere baikor eta irribarretsu irudikatzen zaitut, irudikatu nahi zaitut. Eta indartsu.

Hori idatzi zion Olatz Lasagabaster gure lankideak Picassenteko espetxetik Joxe Mariri gaixotu zela jakin zuenean, 2018ko uztailaren 21ean.

Baikortasunez, irribarretsu eta indartsu, horrela ikusten zuen Olatzek, eta berarekin lan egiteko aukera, zortea, plazera eta luxua izan dugun gainerako Hik Hasiko kideok ere bai. Ezagutu dugunok suerte handi bat izan dugu Joxe Mari gure bizitzen parte izan dugulako. Pertsona berezia zen.

Hazi egiten zinen bere ondoan. Norbere barneko onena ateratzeko gaitasuna baitzeukan Joxe Marik, eta hori pertsona gutxik daukate.



Haren jakintzak hazi egiten zintuen. Asko zekien hezkuntzaz eta sen berezia zeukan, ikuspegi argia, bazekien, sumatzen zuen, hezkuntzak zer behar zuen, euskalgintzarentzat eta herrigintzarentzat zer izango zen baliagarri eta ekarpen. Eta egin egiten zuen. Jakintza eta bisio argi horrez gain, bera ezagutu genuen guztiok barneratu genuen beste bi ezaugarri zituen Joxe Marik, baikortasuna — guztiok blaitzen gintuen bere baikortasunak. Baikortasun sustraitua zen berea, ametsak egikaritu egiten zituen pasioz, indarrez, kemenez, ikaragarritzko grinaz — eta maitasuna. Joxe Marik bazekien jendea zaintzen. Eguzkia bezala izan da, barneraino sartzen zen Joxe Mari.

Galera handia izango da Hik Hasiko familierentzat Joxe Mari Auzmendiren heriotza, baina baita hezkuntzarentzat eta euskalgintzarentzat ere. Lan itzela egin du. Atzean beti, fokuetatik urrun. Orduak eta orduak eta kilometroak eta kilometroak, urte luzetan, azken unera arte. Euskaratik, aniztasunetik, adostasun bila, denontzako hezkuntza hobea helburu. Beneta pertsona inportantea galdu du Euskal Herriak.

Plazer bat izan da, Joxe Mari, zu gure bizitzen parte izatea!

“Emitza egokia soilik onesten bada emitza ona lortzea errazten duten problemak hautatzera eramaten du, aldiz, esfortzuaren bideak erronka zailagoei aurre egiteko ausardia elikatzen du”

Joseba Garmendia



MENDIGORRIAN ETA IRUÑEKO HAUR-ESKOLETAN, EUSKARAZ IKASTEKO OZTOPOAK SALATU DITUZTE

Nafarroan denbora tarte laburrean euskaraz ikasteko zailtasunak izan dira albiste. Batetik, urtarril amaieran, Iruñeko alkate Enrique Maiak iragarri zuen haur-eskola euskaldunak murriztu egingo dituela: aurrerantzean eskola bakarra egongo da euskara hutsean lan egingo duena, eta beste batek euskaraz ez ezik, gazteleraz eta ingelesez izango du eskaintza. Horrela, Navarra Sumaren udal gobernuak erdira baino gutxiagora murriztuko luke egungo eskaintza eta bertan behera utziko luke aurreko alkate Joseba Asironek euskara orotara lau haur-eskoletara zabaltzeko harturiko neurria.

Horrez gain, Mendigorriko 11 familiak salatu dute Hezkuntza Departamentuak ukatu egin diela haurrak herriko eskolan D ereduari aurrematrikulatzeko aukera: euskarazko ereduari nahi izanez gero, Garesko eskolara joatea beste aukerarik ez diete eman. Familien esanetan, Mendigorriko eskolan D ereduari izena emateko aukera bera ezabatu dute Hezkuntza Departamentuaren webgune ofizialetik, eta gobernuak jakinarazi die eskaera orriak ikastetxean bertan entregatuta ere ez dituztela tramitatuko.

Gobernuaren erabakiaren atzean “asmo politikoa” dagoela diote Mendigorriko gurasoek, eta “borondate falta” egotzi diote kontseilariari: “Hezkuntzako teknikarientz txostenen arabera ez legoke arazorik D ereduari zabaltzeko: lekua badago, eta egin liteke. Baina ez dute nahi”. Ratioak agintzen duen taldea osatzeko eskaera nahikorik bildu ezean, Mendigorriko ikasleek Garesera desplazatu beharko dute, ikasketak euskaraz egin nahi badituzte.

Ildo beretik, LAB sindikatuak kritika egin zien Nafarroako Gobernuari eta Euskarabideari, ez dutelako aurrematrikulazio epean D ereduari sustatzeko kanpainarik egin. Sindikatuarentzat, gertaera “larria” da, Euskarabideak “beti egin baititu matrikulazioa D ereduari egiteko kanpainak, udalekin elkarlanean”. Egoera salatzeko eta Mendigorriko auziaz gain haur-eskolen inguruan iragarritako murrizketa salatzeko, manifestazioa deitu zuten otsailaren 29rako.



AZTERKETARIEN LAURDENEK ERE EZ DUTE GAINDITU EGAREN ORDEZKOA

Ikasle gutxiago joan dira, baina ez dute gainditze tasa hobetu. Urtea joan da Eusko Jaurlaritzak EGA titulurako azterketak bertan behera utzi zituztenetik; haren ordez, maila bereko beste azterketa bat antolatzen hasi dira. Udazkenean egin zituzten probak, eta, datuen arabera, titulurik gabe geratu dira azterketari gehienak, lautik hiru. Deialdi ireki bakarra egin zuten iaz, eta ia 2.000 lagunek eman zuten izena. Zerikusi gutxi EGAREN datuekin: adibidez, 2014an 11.000 lagun baino gehiago joan ziren bi deialditan. Hautagaien % 26k lortu zuten EGA titulua 2014an; 2019an C1, % 23k.

BAXOAREN ERREFORMA SALATU DUTE ZENBAIT LIZEOTAN

Jean Michel Blanquer Frantziako Hezkuntza ministroak baxoaren erreforma plantan ezarri zuen iaz. Orain arte, ikasleek lizeoko azken urte bukaeran pasatzen zuten baxoa, azterketa guztiak bi aste epean eginez. Erreformaren asmoa da baxo garaian ikasleek pairatzen duten “presio txikitzea”; beraz, azterketak bi urteko jarraipena kontuan hartuko du, garrantzi handiagoa emanez kontrol jarraituari. Irakasle eta ikasle batzuek ez dute begi onez ikusten aldaketa hori, eta protestak egin dituzte.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

NAFARROA LIZEOKO BI IKASLE ADINGABEK BORTXATU EGIN DITUZTELA SALATU DUTE

Donibane Garaziko Nafarroa lizeoko bi neska adingabek hainbat mutilek bortxatu izana salatu zuten iragan urtarril amaieran. Ondorioz, lizeo bereko bi mutil gazte atxilotu zituzten bortxaketaz akusaturik, eta era berean, lizeotik kanporatuak izan ziren. Ustezko bortxatzaileetako bat 17 urteko mutil bat da eta bestea 18koa. Donibane Garaziko Jendarmeriaren esku dago kasua. Bortxaketaren ondotik, biktimak eta haien senideak laguntzeko batzorde bat sortu du Pirinio Atlantikoetako akademia ikuskaritzak, psikologoz eta laguntzaile sozialez osatua. Gertakariak ikasleen artean asaldura itzela sortu zuen eta ondoko egunetan, Euskal Herriko hainbat ikastetxetan protestak egin zituzten, hala nola Baionan, *Patriarkatuak erasotzen digulako, neska* ikasleok autodefentsa feminista* pankarta eskutan zutela.



HIZKUNTZA GUTXITUEN ALDE «BUSTITZEKO» ESKATU DIOTE ERAGILE SOZIALEK ESPAINIARI

Espainiaren gobernabiderako gehiengo berriak ikusita, hizkuntza gutxituen aldeko ekimen irmoago baten eske jo dute gizarte eragileek Madrilera. Espainiako Kongresuan izan ziren otsail hasieran euskararen, katalanaren, aragoieraren, asturieraren eta galizieraren alde ari diren eragileak —Euskal Herritik, Kontseilua—, eta bilera bat egin zuten gobernua ahalbidetu duten taldeekin. Eskatu diete benetan berma dezatela estatuko hizkuntza aniztasuna, “berezko hizkuntza guztiei segurtasuna, bermea eta aitortza osoa” emateko.

KOMUNITATEAK PARTE HAR DEZALA JANGELEN AUZIAN

Gure Platera Gure Aukera ekinbideak eskaera zehatz bat egin dio Eusko Jaurlaritzari: ikastetxe publikoetako jangela zerbitzua kudeatzeko baldintza berriak diseinatzean, “hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea” berma dezala. Plataformak kritikatu egin du catering enpresa handietan oinarrituta dagoen sistema, “gardentasunik ez” duelakoan.

ZALDIBAR INGURUAN PATIORA ATERA EZINIK

Haurrak eskolako jolastokira atera ezinda eta eskoletako leihoak ireki gabe eduki dituzte Zaldibar inguruko hainbat herritako ikastetxeetan, hala nola, Zaldibarren bertan, Eibarren, Ermuan eta Elgetan, iragan otsailaren 6an Bizkaiko herri horretako zabortegian izan zen luiziaren ondorioz sortutako suteetan dioxina eta furano kantitateek gora egin ostean. Lehen astean informazio falta salatu zuten ikastetxeetako arduradunek, egoeraren berri emateko eta zer egin jakiteko agiri ofizialik ez zuten jaso, eta komunikabideen bidez jakin zuten haurrak patiora ateratzea eta leihoak irekitzea arriksutsua izan zitekeela. Ikastetxeei nabarmen eragin die patiora atera ezinik: zentro askotan txandak egin dituzte ikasleek gimnasioan pasa ditzaten jolas-orduak. Behin sutea amatatu eta dioxina eta furano indizeak jaitsi direlarik, neurriak bertan behera gelditu dira zentro gehienetan.

HIZPIDE IZANGO DA

ESPERIENTZIA BERRI BAT HIK HASIREN ESKUTIK APIRILAREN 4TIK 8RA



Esperientzia berri batekin dator Hik Hasi egitasmo pedagogikoa: irakaskuntzak gero eta gehiago berekin dakartzan estres, lan-karga eta zamatik arintzeko atsedena, formazioa eta zaintza eskainiko dizkie hezitzaileei egonaldi batean. Hiru alderdi horiek lantzeko aukera luzatu du Hik Hasik apirilaren 4tik 8ra Arantzazun egingo den egonaldian. Norbere buru-gorputza zaintzen ikastea ezinbestekoa baita ondokoak eta bereziki haurrak zaintzeko eta hazten laguntzeko.

Marina Pintos yoga irakasle eta *Orain* eta *Izan* diskoen egilearekin bost egunetako egitaraua prestatu du hezitzaileentzako. Eguneroko gainkargak eta erritmoa utzi eta erlaxatzeko eta kontzentratzeko teknikak jarriko dira praktikan, norberarentzat onuragarri direnak eta gero eskolan ikasleekin praktikan jartzeko modukoak direnak. Yoga, ibilaldi kontzientea, emozioen kudeaketa, kontzertu meditatiboa eta abar landuko dira, beti ere, hezitzaileen beharretara egokituriko egonaldia izango da.

Egitaraua:

- **Lehenengo eguna:** Iritsi eta egonaldian landuko dugunaren azalpena. Ondoren, unean uneko arreta.

- **2. eguna:** Meditazioa eta yoga suabea; gosaria; osasunaren bost oinarriak; bazkaria; erlaxazioa eta kontzentrazioa eskolan; afaria; meditazioa.

- **3. eguna:** Meditazioa eta yoga suabea; gosaria; erlaxazioa eta kontzentrazioa eskolan; bazkaria; kontzientzia hartzeko gaitasuna landuko da; naturan ibilaldi kontzientea; afaria; meditazioa.

- **4. eguna:** Meditazioa eta yoga suabea; gosaria; erlaxazioa eta kontzentrazioa eskolan; bazkaria; emozioen kudeaketarako hainbat tresna landuko dira; kontzertu meditatiboa; afaria; meditazioa.

- **5. eguna:** Meditazioa eta yoga suabea; gosaria eta egonaldiaren bukaera. Izen ematea martxoaren 17an amaituko da eta kopuru mugatuak daude. Informazio gehiago www.hikhasi.eus webgunean dago.

MARTXOAN IZANGO DA LEHEN TAILERRA BIRSORTUN

Hik Hasi eta Emausen proiektua den Birsorturen atea urtarilean ireki ziren. Geroztik asteazkenero bertara gerturatu eta materiala hartzeko aukera izan dute bailarako ikastetxetako hezitzaileek eta iaz Hik Hasiren esperientzia pilotuan parte hartu zutenek. Horrez gain, hileroko tailer bat egiteko aukera izango dute. Martxoko tailerra Itsaso Pagoagarekin, Arrasateko OI-geta Jolaserako Baliabide Zerbitzuko hezitzailearekin, egingo da.

OINHERRI HERRI HEZITZAILEEN JARDUNALDIA EGINGO DA MARTXOAREN 28AN


Durangoko Sanagustin kulturgunean egin du hitzordua Oinherri martxoaren 28rako, udal guztiei deialdi irekia eginez. Herri hezitzaileen filosofiararen baitan, gero eta herri gehiago ari dira batzen egitasmora. 9.30-13:30 bitartean esperientziak partekatzeko, elkar ezagutzeko eta herrien arteko sarea egonkortzeko aukera izango da.

IKASLEAK GREBARA

Ikasle Abertzaleek grebara deitu dute martxoaren 26rako unibertsitateetan, DBHn eta Lanbide Heziketan. Unibertsitateko tasak merkatzeko, bekak hobetzeko eta hezkuntza osoa doakoa izateko eskatuko dute.

Urteko harpidetza
50 € (10 zenbaki)

hik hasi euskal heziketarako aldizkaria



BIRSORTU ZABALIK



BENITO LERTXUNDI

Egin zaitez **hik hasi** komunitateko kide
Prezio bereziak ikastaroetan, topaketetan,
materialetan eta bidaiia pedagogikoetan

heziketa erdigunean

Harpidetzak:

hikhasi@hikhasi.eus • 943 37 14 08 • www.hikhasi.eus



“H” hizkia berezia izan da Hik Hasirentzat eta Joxe Mari Auzmendirentzat: Hik Hasi egitasmoa, *hik hasi* aldizkaria, *Hazi Hezi* aldizkaria, hezkuntza, heziketa, haziera, herria, haurrak, hezitzaileak, harremanak... Eta orain beste hitz bat gehitu behar zaio, hori ere h-rekin hasten dena: *heriotza*. Joxe Mari Auzmendi hil da, Hik Hasiren sortzaile eta bultzatzaile nagusia, taldeko arima. *Hutsune* latza utzi du *herrigintzan* eta euskalgintzan, asko egin eta emandakoak uzten duen itzala handia izaten baita. *Herrigintza* eta *hezkuntza* itsasargitzat hartuta egin duen ibilbidea emankorra, inportantea eta *handia* izan da; erakutsi dituen balioak, eredutzat hartzeko modukoak; izan duen jarrera baikorra, bateratzailea eta gertukoa, azpimarratzeko modukoa. *Harremanetan* oinarrituta aritu da lan eta lan. Ondare publiko izendatzeko moduko *herentzia* utzi du Euskal Herri osoarentzat.

GAIA:

JOXE MARI

AUZMENDI

Sekula agortzen ez zen iturria

Joxe Mari Auzmendi hil da, Hik Hasiren arima”. Horixe idatzi genuen 2020ko otsailaren 13an. Eta bai, Hik Hasi egitasmo pedagogikoaren sortzaile eta bultzatzaile nagusia izateaz gain, Joxe Mari Auzmendi taldeko arima eta proiektuaren lema izan da. 2020ko maiatzean beteko dira 25 urte *hik hasi* aldizkariaren 0. zenbakia atera zela eta 25 urte horietako ibilbidean Joxe Mariren arrastoak itzal handia utzi du. Bete ezineko ametsa zirudiena sortzea, gorpuztea eta bideratzea lortu zuen eta herentzia hori utzi dio euskal hezkuntza komunitate osoari, Euskal Herriko herritar guztiei.

Ametsaren abiapuntua testuinguru jakin batean gertatu zen. Azkaraten (Nafarroa) jaioa izan arren, 6 urte zituenean familia osoa Legazpira joan zen bizitzera. Han bizitu zituen Joxe Marik eskolako lehen urteak Telleriarte auzoko eskola txikian. Gaztaroan herriko aldizkarian, irratian eta hainbat ekimenetan parte hartu zuen. Patricio Etxeberrian kimikari lanetan hasi arren, bere lekua umeekin zegoela antzematzen zuen, eta Legazpiko Haztegi ikastolan irakasleak falta zituztenez, han hasi zen lanean. Sarritan gogoratzen zituen hango ikasleekin kalera egindako irteerak, haiekin izandako elkarriketak, testu libururik gabe lan egin zituzten urteak eta abar. Gozatu egiten zuen umeen artean.

Gauzak aldatzeko eta berritzeko zuen grinak ikastolako LAB sindikatuko ordezkari izatera eraman zuen 80ko hamarkadan. Urte haietan sindikatuaren barruan irakaskuntzako taldea sortzen aritu zen beste hainbatekin batera eta bera izan zen Gipuzkoako ikastoletako lehen delegatua LAB Irakaskuntzaren barruan 1986an. Rafa Diezekin partekatu zuen bulegoa urte haietan, baina bulegotik at Gipuzkoa osoko ikastoletara joatea ere egokitu zitzaion. Izan ere, 1993. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Euskal Eskola Publikoaren Legea atera zuen eta ikastolek erabaki garrantzitsu bat hartu behar izan zuten EAEn: sare publikora pasa ala ez. Une gatazkatsuak izan ziren hainbat ikastolatan; batzuek baiezkua erabaki zuten eta beste batzuek ezezkoa. Gertaera horrek asko markatu zuen Joxe Mari, bera beti batzearen aldekoa izanik ikastolak erdibituta ikusteak min ematen baitzion.

Ikastolen mugimenduaren barruan Irakasleen Elkartearen zegoen eta bertako partaide ere bazen Joxe Mari beste 500 irakasleekin batera. Urtean behin edo bitan *Isilik* izeneko pedagogia aldizkari bat argitaratzen zuen elkarteak. Publikazioaren ondoren elkarte itxi egin zen eta hutsune bat geratu zela ikusten zuen Joxe Marik. Proiektu bat zerabilen buruan eta ingurukoengana jo zuen laguntza eske, besteak

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI

Sekula agortzen ez zen iturria



Joxe Mari Auzmendi *hik hasi*ren 0. zenbakia eskuetan eta 1. zenbakia egiten, 1995ean.

beste Arantxa Urbe Zarauzko ikastolako irakasle eta LABeko ordezkarieengana. “*Isilik* aldizkariak eta Irakasleen Elkartek utzi zuten hutsunea bete egin behar zela iruditzen zitzaiola esan zidan, eta ea lagunduko nion espazio hori betetzen. Eta horrelaxe hasi zen Hik Hasi proiektua diseinatzen eta dirua nondik atera pentsatzen”. Sator lan horren beste urrats bat 1994. urtean eman zen UEUko udako ikastaroetan. Pedagogia sailak antolatutako ikastaro batean hezkuntzaren egoeraren gaineko hausnarketa egin zuten parte-hartzaileek eta horren ondotik irakasle gehiago hurbildu zen Joxe Mariren ideiaaren bueltan. Inguruko

jendeari deitu eta bilera bat egin zuten, eta han izan zen Josi Oiarbide Ekintza ikastolako irakaslea eta LABeko ordezkarria: “Euskal hezkuntzaren esparruan proiektu zabal eta berritzaile bat sortu nahi zuela esan zigun, eta horren baitan, hasteko, euskarazko aldizkari pedagogiko bat, proiektuaren bizkarrezurra izango zena. Denok barre egin genuen”. Bai, ideia zoroa zirudien, inork ez zuen uste posible zenik, baina Joxe Marik bai.

Lehen urratsa aldizkaria argitaratuko zuen enpresa sortzea izan zen. “Batera eta bestera hasi ginen proiektua

“80ko hamarkadan ezagutu hindudan, Joxemari, Legazpin euskara zinegotzi hintzela, irribarrez eta kementsu. Eta hala jarraitu duk beti, ilusioz gainezka”

Kike Amonarriz

“Lurraren besoek jaso dute gure laguna eta gure bihotzetan goxo geratu. Asko mattatu dugu Joxe Mari. Besarkada estua familiari eta baita Hik Hasikoei ere”

**Izaskun Madariaga
(Hik Hasi kidea)**

“Zalantzarik gabe, Euskal Herriko hezkuntzari gehien eman dion pertsona. Zenbat bizipoz eta irakaspen, lagun! Beti izango dut gogoan zure irribarrea”

Ikoitz Arrese (EH Bildu)

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI

aurkeztuz, dirua publizitatetik aterako genuela pentsatuz”, gogoratzen du Urbek. “Hitz onak bai, baina dirurik ez. Kutxetara eta argialetxeetara joan ginen hasieran, baina ez zuten proiektua bideragarri ikusten”. Azkenean, hamabost pertsonen jarritako 50.000 pezetako partaidetzarekin sortu zen enpresa sozietate mugatu gisa. “Inguruko pertsonen jarri zuten dirua eta *Argia* aldizkariak partaidetzak eta lokala jarri zituen. Batere bitartekorik gabe hasi ginen: ohol batzuekin mahaiak moldatu eta ez dakit nondik ateratako ordenagailuekin”, oroitzen du Urbek. “Gu gure lanetik atera eta laguntzera joaten ginen. Gogoratzen dut gutun bat iristen zen bakoitzean izugarritzko irrikaz irekitzen genuela, gure proposamenari baiezkoa emango zion esperantzaz, baina beti ezezkoa zen. Eta halere, Joxe Marik segi eta segi, amore eman gabe”. Horrela, 1995eko maiatzean *hik hasi* aldizkariaren 0. zenbakia argitaratu zen, eta irailean 1. zenbakia. Urte hartako Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara hiru zenbakirekin joan ziren.

Hemengoa, euskaraz eta berritzailea

Nahiz eta Joxe Mari ikastolako irakasle eta Irakasleen Elkarteko kide izan, Hik Hasin hasi zuen etapa eta proiektu berri honen ikuspegia askoz ere zabalagoa eta irekiagoa izan zen hasiera-hasieratik. Euskal irakaskuntzan zebilen orori irekia zegoen, denentzat zen, sareen arteko arrakala gainditu nahi zuen, euskal irakaskuntzan zebilen ororen premiei erantzun nahi zien eta sare eta herrialde guztieta-ko hezitzaileak, gurasoak eta herritarrek itsasontzi berean arraunean jarri. Informazio, eztabaida eta elkargunerako bitarteko izateko bokazioz jaio zen Hik Hasi. Ordura arte kanpoko erreferentziekin ibili izan ziren irakasleak pedagogia mailan (*Cuadernos de Pedagogia*, adibidez), eta Hik Hasik hemen bertako esperientzia interesgarriak bildu eta ezagutarazi nahi zituen aldizkariaren bitartez; elkarren berri jakiteko modu bat eskaini nahi zuen. Eta euskaraz. Euskaraz lanean zebiltzanek euskarazko tresna bat edukitzea ezinbesteko ikusten zuen Joxe Marik. “Euskararekiko sentsibilitate eta begirune berezia zituen. Gaur egun irakasle guztiak euskaldunak dira, baina duela 25 urte ez, eta berak erakusten zuen begirunea garai hartan kokatuta baloratu beharko litzateke”.



Joxe Mari Auzmendi Legazpiko Haztegi ikastolako ume taldearekin.

Hilabetekariaren ildoari jarraituz, behar eta hutsune gehiago ikusi zituzten Joxe Marik eta harekin zebiltzanek, besteak beste, prestakuntzan. Oiarbidek dioenez, “gu Adarrako formazioetara joan ohi ginen, baina gehienak gaztelaniaz ziren. Bartzelonako Escola d’Estiu-ra ere joaten ginen. Hori ikusita, hemen egin behar zela jabetu ginen, hemen eta euskaraz”. Horrela, lehen ikasturtean bertan, 1996ko maiatzean, *Irakurketa-idazketa konstruktibismoaren ikuspegitik* jardunaldia antolatu zituzten eta 400 lagunetik gora elkartu ziren Donostiako Miramar jauregian. Udazkenean formazio bera egin zen Bizkaiko Lauro ikastolan eta han ere beste hainbeste bildu ziren. “Jasotako erantzunak izugarritzko indarra eman zigun eta bide onetik abiatu ginela konturatu ginen”.

Hezitzaileen aldetik jasotako erantzunak elikatu egiten zuen Joxe Mari, eta hurrengo jarduera antolatzeari ekiten zion. Pentsatu, ingurukoekin eta adituen partekatu eta antolatu egiten zuen. Horrela etorri ziren marrazketa librearen inguruko jardunaldia, balioei buruzkoa, telebistaren gainekoa eta udako topaketak. Beti euskarazko prestakuntza eskaintzeko helburuarekin eta berrikuntza pedagogikoak ardatz harturik, hemengo nahiz kanpoko erreferentzia baliagarriak azaleratuz. Eta nola ez, irakaskuntzan zebilen orori gainerako profesionalekin elkartzeko eta partekatzeko aukera eman nahian. Euskarazko prestakuntza eta bilgunea biak elkarri lotuta egon dira Joxe Mariren buruan eta Hik Hasin.

“Gure hezkuntza sistema eraldatzeko langile nekaezina izan zara, Joxe Mari. Zenbat hikhasi dugun zurekin! Eskerrik asko egindako lan guztiagatik”

Mertxe Mugika

“Pertsona gutxi ezagutu ditut halako positibotasun eta indarrarekin. Zenbat laguntzen zuen desadostasunak zeudenean tarteko bideak topatzen”

Saioa Rodriguez

“Oraindik ezin dut sinetsi. Joxe Mari, gure Joxe Mari, bizitasunaren munstroa, jada ez dago gurekin. Herri honetan jende askok bezala, Joxe Mari miresten genuen”

Koldo Gorostiaga (Grafik)

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI

Sekula agortzen ez zen iturria

25 urteko ibilbidean hutsune gehiago ikusi ahala, horiek betetzen saiatu zen. Eta horrela, aldizkariak gain proiektuaren barruan ekimen gehiago sortuz joan ziren: *Haur-jolasen abestiak* diskoak, *Zatoz jolastera!* eta *Jolasen altxorra* bideoak, *Begiradaren heziketa* proiektua, monografikoak eta liburuak (besteak beste *Gazteak eta euskara*, *Elbira Zipitria*, *Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako* eta *Euskal Herrian erreferente diren pedagogokoak*). Hezkuntzako beharrak detektatzeko gaitasun berezia zuen, eta kanpoko esperientziak ezagutu eta gurera ekartzekoa ere bai. Euskal hezkuntzako hezitzaileentzat eta eragileentzat baliagarri izan zitezkeen ereduak erakusteko jardunaldiak antolatzen hasi, eta atzerrira joan eta esperientziak bertatik bertara ezagutzeko bidaia pedagogikoak antolatzen bukatu zuen.

Ekintzailetasun eta berrikuntza horiek guztiak erantzun ona izateaz gain, sona eta oihartzuna ere izan dute. 25 urteotako jardunean hainbat sari jaso ditu Hik Hasik: 2001ean *Zatoz jolastera!* bideoarekin jatorrizko bideoetan aipamen

berezia Migel Altzo sarietan, Lekeitioko XXV. Zine bideo bilerako saria 2002an lan berarekin, Migel Altzo sarian bideorik hoberenaren saria *Begiradaren heziketarekin* eta *Argiaren merezimendu saria* 2006an, Hik Hasik 10 urte betetakoan.

Eragile eta bateratzaile izateko bokazioa

Dibulgazioaren eta formazioaren esparruan ekarpena egi-teaz gain, Hik Hasi euskal hezkuntzaren esparruan eragile izateko bokazioz jaio zen, eta hor Joxe Mariren itzala agerikoa da, horixe baitzen haren bokazioa eta barru-barrutik bizitzen eta sentitzen zuena. Euskalduna, nazionala, irakasleena, irekia eta plurala, bateratzailea eta independentea. Horiek dira 0. zenbakiko editorialean azpimarratutako ezaugarriak, Joxe Marik betetzen zituen balioak.

“Joxe Mari LABetik eta ikastolatik zetorren, baina ikuspegi zabala eta bateratzailea zuen eta indar berezia



Zatoz jolastera! bideoaren grabaketa taldearekin eta parte-hartzaileekin, 2000. urtean.

“Urte luzetan, lankidetzaz ireki, zentzudun eta leiala erakutsi digu Joxe Marik, adimenaz bezainbat pasioz sentitzen zuen euskal hezkuntza proiektu baten alde”
Markel Olano
(Gipuzkoako diputatu nagusia)

“Hezkuntza eraldatzea amets dugunok eskerrak ematea besterik ez dugu Joxe Mari Auzmendi Hik Hasiko koordinatzaileari, urteetan egindako lan itzelagatik”
HUHEZI (MU)

“Pertsona handi bat eta gure Herriko hezkuntzaren erreferente handi bat joan zaigu. Besarkada bat Hik Hasiko familia guztiari”
Asier Romero
(EHU- Hezkuntza dekanoa)

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI



Hik Hasiren Hezkuntza Goraipamenen ekitaldian, 2009an.



Durangoko Azokan Miren Guillo eta Aranxa Urbe lankideekin, 2009an.

jartzen zuen zabaltasun horretan. Garbi zeukan hori egin behar zela, berak horretan sinesten zuen. Ahalegin handia egin zuen Eilaskoekin, ELAkoekin, EHIGekoekin, kristau eskolakoekin, Iparraldekoekin, Nafarroakoekin, lurraldetasuna eta sareen arteko mugak apurtuz, ikuspegi bateratzaile batetik eraikitzen”, gogoratzen du Urbek. Bakoitzak bere koloreak eta ezaugarriak izanagatik, kontziente zen denok osatzen dugula euskal hezkuntza eta denok batera egin behar genuela aurrera.

Ikastetxeen eta unibertsitateen artean zubi lana egiten ere lehendabizikoetakoak izan zen Joxe Mari. Argi ikusten zuen bi esparru horiek elkarren berri izan behar zutela: unibertsitateak jakin behar zuela eskoletan zer egiten ari zen, eta eskolek unibertsitateko ikerketen laguntza izan behar zutela.

“Zabaltasun horretan gehituko nuke pedagogia eta beste arlo batzuetako hainbat aditurengana joan izana ere: Lontxo Oihartzabal, Carmen Maganto, Jose Maria Setien, Joxe Azurmendi, Lolo Rico... Eta horrez gain, instituzioekiko harremana ere bai”, gehitzen du Oiarbidek. “Instituzioak eta gu aurrez aurre geunden garaiak ziren, ez zegoen dirurik guretzat, murrizketak zeuden... eta Joxe Mari ahalegin berezia egin zuen haiekin harremana

bideratzeko, uste baitzuen instituzioek eta herritarrek batera joan behar zutela”.

Ikuspegi horrekin antolatu ziren 2009an *Hik Hasi Hezkuntza Goraipamenak*, Udako Topaketan 10. urteurrenean eta Hik Hasiren 15. ikasturtean. Lehen aldiz Euskal Herri osoko hezkuntzako hainbat ekimen goraiatzeko ekitaldi-bazkaria egin zen. Hezkuntzako 80 ordezkari elkartu zituen ekimenak: lau administrazioetakoak (Frantziako Hezkuntza Nazionalekoa, Nafarroako Hezkuntza Departamentukoa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailekoa eta Gipuzkoako Foru Aldundikoa), ikastetxe guztietakoak (sare publikoak, ikastolak eta kristau eskolak), unibertsitateetakoak, aisialdikoak, argitaletxeetakoak, artistak, euskalgintzakoak, komunikabideetakoak eta abar. *Hik Hasi Hezkuntza Goraipamenak* ekitaldiak bi xede nagusi zituen: bata Euskal Herrian hezkuntza arloan garatzen ari ziren praktika edo jardunbide onak goraiatzea; eta, bestea, Euskal Herrian hezkuntza arloan ari ziren talde eta eragileak elkartzea eta elkarrekin partekatu zitzaketan bi arloak indartzea (euskararen eta kulturaren transmisioa eta hezkuntzaren prestigioa).

Zatiketak baztertu eta jendea elkartu. Horixe zen Joxe Mariaren nahia. Bateratzeko ahalegin horren lekuko izan zen baita ere 1999an sortutako *Hezkuntzaren Gizarte GUNEA*,

“Hezkuntza komunitatearen mugak zabaltzen egindako lanagatik, pedagogia aurreratuenak bultzatzeagatik eta ilusioa beti mantentzeagatik, mila-mila esker”

Miren Larrion (EH Bildu)

“Inoiz jakingo ote ditek egungo euskaldunek eta etorriko direnek, zenbat zor diaten? Hik Hasitakoak jarraipena izango dik... Bidai on laguna!!”

Ikor Kotx

“Zelako pena handia, Joxe Mari! Irribarre goxo horrekin gogoratuko zaitugu eta zure baikortasuna eredu izango dugu aurrera egiteko”

Ane Gurrutxaga

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI

Sekula agortzen ez zen iturria

zeina hezkuntzako gaien inguruko eztabaida eta hausnarketarako bilgune izateko xedez sortu zen. Hezkuntzako hainbat eragilek hartu zuen parte norbanako gisa, gero bakoitzak bere esparruan eragiteko konpromisoa hartuz. Hik Hasiren egitekoa izan zen GUNEA koordinatzea. Irakaskuntzan euskarak zuen egoera landu zuten eta 1999ko abenduan *Adostasun txostena* aurkeztu zuten hurrengo laupabost urteetarako helburu eta ildo estrategikoak markatuz.

Bide beretik, 2003an ekimen berri batean hartu zuten parte Hik Hasik eta Joxe Marik: Nazio Eztabaida Gunearen barruan Hezkuntza batzordea eratu zen euskal hezkuntza sistema nazionalaren inguruko hausnarketa egiteko, eta emaitza *Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioa* izan zen. Hor ere ahalik eta parte-hartze zabalena eta anitzena lortzen saiatu zen Joxe Mari.

Urteek aurrera egin ahala, euskal hezkuntza sistemak eta antolaketak beste bultzada bat behar zuela sentitzen zuten, eta lan horretan murgildu zen Hik Hasiko beste hainbat kiderekin batera. Horrela, urtebetez Euskal Herriak behar duen hezkuntzaz hausnartzen eta eztabaidatzen aritu ondoren, 2018ko apirilean Hik Hasik *Hezkuntza Proposamena* aurkeztu zuen, euskal hezkuntza hobetzeko hamar gakorekin (www.hikhasi.eus-n dago dokumentu osoa). Azkenera arte eutsi zion erronka garrantzitsua izan zen eta



Hezkuntzaren Gizarte GUNEAko eragileekin batera *Adostasun txostena* aurkezten 1999ko abenduan.

Hezkuntza Adierazpena izango da haren jarraipena, argi eta garbi ikusten baitzuen Joxe Marik horren beharra dagoela une hauetan.

Joxe Marik gaitasun aparta zeukan jendearekin erlazionatzeko, berezkoa zuena. Horrez gain, jende asko ezagutzen zuen, eta horrek Hik Hasiren zabalpenean eta irekitasunean asko lagundu zuen. Hik Hasik hezkuntza sare guztien artean bere lekua izatea lortu du. Oiarbidek azpimarratzen du batzen gaituenari ematen ziola garrantzia Joxe Marik: “Bideak elkartzen gaituela esaten zuen, ‘elkartuko gara, lasai, elkarrekin goaz eta elkartuko gara’. Nik hori oso leku gutxitan ikusi dut, eta gure kulturari askoz gutxiago. Badi-rudi beti desberdintzen gaituen horretan jarri behar dugula arreta. Eta Joxe Marik justu kontrakoa egiten zuen: batzen gaituenean jarri indarra”.

Eskolatik etxera eta etxetik herrira, heziketa denon ardura da

Hasieran aldizkariaren hartzaile zuzenak irakasleak izan baziren ere, Hik Hasik hasieratik ireki zizkien atea gainerako herritarrei ere: Irakasle eta Pedagogia ikasketak egiten ari ziren unibertsitateko ikasleei, hango irakasleei, gurasoei... Hori ere zabaltzeko modu bat izan zen, ikuspegia irekitzeko, eta are gehiago ireki zen bide hori 2000. urtean: “Italiako Reggio Emiliako haur eskolak ikustera joan ginen eta han ikusi zuen eskolaren eta familiaren arteko harremanak asko eragin zion Joxe Mariri. Han komunitatea bere osotasunean bizi zutela ohartu zen. Eskolako garbitzaileak eman zizkigun azalpen pedagogikoak. Denek zuten formazio pedagogikoa. Komunitatearen zentzua oso indartuta ekarri zuen Reggio Emiliatik, familia eta eskola. Eta hor jada hasi zen ideari bueltak ematen”.

Eskolak leku handia du haurren hezkuntzan; etxeak, familiak, gurasoek ere bai. Heziketako zereginean biak batera ikusi zituen Joxe Marik, jada banatu ezin zitezken bi elementu ziren harentzat: eskola eta familia, familia eta eskola.

“Nola eskertu argi dut: martxan jarri zituen proiektuen parte izanez, amesten dugun Euskal Herri eta gizarte anitz horiek gauzatzen jarraituz ilusioz eta konbentzimenduz”

Juankar Bermejo

“Sakanako herri eskolen partetik, eskerrik asko Joxe Mari, zure lan eta irribarreagatik. Gurekin izango zara betiko”

Lierni Galarraga

“Azken urteetan behin baino gehiagotan joan gara ate joka, Joxe Marik beti ireki dizkigu Hik Hasiko atea, eta beti izan da laguntzeko eta bidelagun izateko prest”

Azpeitiako Udala

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI



2014an, Hik Hasiren 20. urteurrenari begira jarrita, Hik Hasiko kide, kolaboratzaile eta aholkulariak Zarautzen, etorkizuneko erronken inguruko hausnarketaren ondoren.

Eta hortik etorri zen Hik Hasiren beste proiektu bat 2012an: *Hazi Hezi* haziera eta heziketa aldizkaria. Kazetaritzaren eta paperaren krisi-unerik sakonenean, euskarazko prentsa beheraka zihoanean, berak apustu egin zuen. Gurasoei tresna bat eskaini behar zitzaizela sinesten zuen eta haziera eta heziketa gaiez gurasoak euskaraz informatu behar zirela sinetsita zegoen.

2012an Italiara egin zuen beste bidaia batek are gehiago ireki zion ikuspegi hori. Alaba batekin izan zen Francesco Tonucci pedagogoak elkarriketatzen eta hark herria ikusteko zuen ikuspegia barneratuta itzuli zen. Herria eta haurrak, haurren hiria, hezten duten herriak... kontzeptu eta ideia horien inguruan hausnartzen hasi zen. Hausnarketa hori beste batzuekin partekatzen hasi zen 2012an, haurren hezkuntza eta aisia beste modu batera egin zitezkeela amesten zutelarik denek. Bidelagun horietako bat izan zen Joxe Mari Agirretxe *Porrotx*: “Familientzako aisialdirako eskaintza bat egin nahi genuen herrian bertan zeuden

baliabideak aprobetxatuz. Kanpotik ezer ekarri gabe, herri guztietan daude irakasleak, hezitzaileak, suhiltzaileak, basozainak... denetariko pertsonak, denetarik dakitenak, eta jakituria hori aprobetxatu nahi genuen. Horrela sortu zen, esate baterako, Oarso Irriak proiektua”.

Teoria eta praktika uztartuz, herrigintzatik, benetako parte-hartzea bultzatuz eta balio hezitzaileak hedatzeko helburua hartuta, hainbat urrats egin zituzten eta emaitza *Oinherri*, *herri hezitzailea eskola herritarra* izan zen. Hezkuntza eta heziketa ez da eskolaren eginberrara bakarrik, ez da familiaren egitekoa bakarrik, herri osoarena baizik. “Herrigintza hor dago, administrazioa hor dago, denon zeregina da, denok daukagu zer ikasi, zer erakutsi, zer jaso, zer eman, denok daukagu partekatze gaitasuna. Eta Joxe Mari gartsuki defendatzen zuen hori: denon artean egin behar dugula herria, komunitatea”. Eta horren barruan denak sartzen dira, baita behar eta eskubide bereziak dituzten umeak ere. “Erdigunean jarri behar diren umeen artean daude horiek

“Beti eskuzabal, beti laguntzeko prest, 92an ezagutu nuenetik elkarlanerako jarrera erakutsi digu beti Joxe Mari, denei entzuteko prest”

Ane Unanua (Donostia)

“Joxe Mari izan da eta izango da Euskal Herrian heziketa humanista eta soziala eraikitzeko sortuko diren proposamen guztion sustraia”

**Luzaro
psikomotrizitate eskola**

“Guretzat maisu handi-handia izan zara. Zuk guri emandako irakaspena eta maitasuna besteei helaraztea da gure misioa eta pozik beteko dugu”

Katxiporreta

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI

Sekula agortzen ez zen iturria



2013an egin zen Herri hezitzailea jardunaldian, Joxe Mari Francesco Tonucciren ondoan. ARG: Mendi Urruzuno.

ere eta hori bultzatzeko sortu zen Bizipoza, besteak beste. Joxe Marik hasieratik egin zuen bat Bizipozarekin eta talde eragileko partaide izan da azken urteetan”, dio Agirretzek.

Herrigintzan egin zuen ekarpena azpimarratzen du Agirretzek. “Beti ibili zen herrigintzan eta azken 30 urteotan herrigintzan egin diren gauza guztietan egon da Joxe Mari bere hezkuntza ikuspegitik begiratzen eta berau defendatzen”. Joxe Marik berak esana da: “Gu herritarrek gara eta herrigintzatik aritzea dagokigu”.

Zaintza bere jardunaren erdigunean jarria

Joxe Mari ezagutu zutenek haren aldetik zainduak izan direla azpimarratzen dute. “Bazekien jendea zaintzen” dio Agirretzek. “Antolatu ditugun jardunaldi eta topaketa guztietan eskaini izan dugu hamaiketakoa, bazkaria edo dena delakoa, eta hori bere nahia zen, bere zigilua, jendea zain-

tzeko beharrak bultzata egiten zuena”, dio Oiarbidek. “Eta etxea ere zaintzen zuen”, gehitzen du Urbek. “Alegia, Hik Hasi. Bazekien etxeak indartsu egon behar zuela eta hori ere beti presente zeukan”. Eta etxe barruan sartzen zituen harpideak, noski. “Harpideon laguntza ezinbestekoa da Hik Hasik aurrera egiteko” esaten zuen behin eta berriro, eta begirune maitakorrez tratatzen zituen, gertuko harremanean elikatuz, goxatuz eta errespetatuz.

Iraupen-lasterkari gisa definitzen du Urbek, etsi gabe egin eta egin aritu zena, sarritan gainerakoen aurretik joan zena zeukan ikuspegi zabal eta aurrerakoiagatik, baina horrelakoetan gainerakoei itxaroten jakin zuena. Sinesten zuen hori egiten zuen, eta zailtasunak zailtasun, beti aurrera, inoiz etsi gabe. *Ezina, ekinez, egina* leloa bete-betean gorpuztu zuen. Hasieran inork ez zuen sinesten Hik Hasi bideragarria zenik, baina berak bai, eta 25 urte betetzear da hark sortutako proiektua.

“Zuk eman dizkiguzun goxotasuna, alaitasuna, indarra, gogoia, jakituria eta ilusioa gurekin izango ditugu aurrerako bidean. Mila-mila esker”

Bizipoza

“Joxe Mari Auzmendi, hezkuntzaren ikuspegi sozial eta kulturalaren kimikaria. 1954-2020. Agur eta ohore”

**Marisol Urija
(Berritzegunea)**

“Hezkuntzan lan egiten dugunontzat Joxe Mari Auzmendiren ekarpena ezinbestekoa izan da. Eskainitako guztiagatik mila esker”

Urtxintxa

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI



Joxe Mari Auzmendi Arantza Goiburu zena, Mikel Estonba eta Ainhoa Azpirotz lankideekin, 2000. urtean.



2017an Kuban, Joseba Sarrionandiak gonbidaturik Hik Hasi proiektua aurkezten Habanako unibertsitatean, Arantzazu Muñoa eta Ainara Gorostitzu lankideekin.



Miren Guillo, Arantxa Urbe, Olatz Lasagabaster eta Izarne Garmendia kideekin, 2009an, Habanako Hezkuntza kongresuan.



Reggio Emiliari buruz Bilbon egindako jardunaldiaren 2016an, Leire Saez, Alfredo Hoyuelos, Ana Araujo, Maddalena Tedeschi eta Rosa Buonannorekin, besteak beste.

“Garai zailak datoz”, zioen azkenaldian. “1993ko legearen ondorioak jasaten ari gara. Lege hark ez zuen ezer konpondu eta orduko eztabaida eta posizionamenduak errepikatze-ko zorian gaudela iruditzen zait. Gainera, jaiotze-tasaren beharakadaren ondorioz matrikulazio jaitsiera dator; eta bakoitza bere txokoan eta bere zilborrari begira ari da. Sistemak bidea markatzen du eta gure artean gatazka eragiten du, sistema zaharrari alternatiba aurrerakoa, berria, gurea

eta sendoa antolatzea galaraziz. Horrela aliantzak egitea zaila da”. Irakurketa hori egiten zuen azkenaldian egungo egoeraren gainean, baina halere baikortasunik, itxaropenik eta gauzak egiteko gogorik galdu gabe. Honelaxe utzi zuen idatzia bere mezua: “Hezkuntzaren egoerak astindu ederra behar du. Astinduko al dugu? Pizgarri horrekin jai zen Hik Hasi, hezkuntza berritzeko, eraldatzeko, demokratizatzeko eta mundua euskal ikuskeratik interpretatzeko”.

“Nazio eraikuntzan abiarazi zuen bidea ibiltzen jarraituko dugu! Besarkadarik estuenak senide eta hurbilekoei. Ez adiorik Joxe Mari!”

Udalbiltza

“Ze tristura! Joxe Mari Auzmendik ikaragarri eman dio hezkuntzari, beti atzean, beti laguntzeko prest. Beti arte gordeko dugu zure irribarrea!”

Maite Garcia (Iruñea)

“Atsekabean lagun, doluminak Joxe Mari Auzmendiren familiari. Gure eskertza HERRIGINTZAN kide nekaezin eta partaide aktibo izan zaitugulako”

Gaztetu-Hernani

Irria hari zuen jostuna

Euskalgintzan eta hezkuntzan egin zuenagatik bezainbeste, eragin zuenagatik hutsune latza utzi du Joxe Mari Auzmendik. Baikorra, bateratzailea eta langilea izan da azken unera arte.

Nola neurtzen da hutsunea? Ikaragarria da Joxe Mari Auzmendik utzi duen zuloa. Ia ukigarria da. Baina bulegoan, etxean, hezkuntzan, herrigintzan, euskalgintzan ez ezik, gutako bakoitzaren barrenbarrenean sentitzen da hutsune hori. Tristuratik asko du, hor sabelpean zuloa egin du tristurak eta ezarri egin da, eta egunak eta batez ere gauak egingo ditu bertan. Bertigotik ere badu —izango al gara gauza zuk urratutako bideak zeharkatzeko, Joxe Mari?— eta baita harrotasunetik ere —inoiz ez harrokeriatik!—, eta saminetik; gaitzak erasana, ikusten genuen etor zitekeela heriotza nahi baino lehenago, baina zaila da onartzea Joxe Mari “bizitasunaren muntroa” hil egin dela, eta horregatik du saminetik hainbeste hutsuneak. Zulo ikaragarria utzi du Joxe Marik, asko betetzen zuelako.

Hutsunea, asko egin duelako. Lan itzela hezkuntzan, euskalgintzan, herrigintzan. Hasi Legazpin, gero LABen eta hezurmamitu Hik Hasin. Baina barnehuts itzela, eragin duenagatik. Bere lan egiteko moduak, izateko manerak, irribarreak eta baikortasunak arrasto handia utzi dute. “Bihotza urratu zaigu”; “Mila miloi esker Joxe Mari zure izaera eta egindako guztiagatik”; “Euskal Herriak halako bihotz gehiago balitu!”. Eta gisa bereko ehundik gora mezu hil berritan. Euskalgintzako eta hezkuntzako eragileen dolumin asko, baina Euskal Herri luze-zabaleko irakasle eta herritarren sentimenduak gehiago. “Eskerrik asko zure laguntzagatik, beti hor egon zara, atzean. Galera ikaragarria izango da”, zioen irakasle batek Lasarte- Oriatik.

Hitzak esanahiz bete dituen pertsona izan da Joxe Mari.

Gizarte likido honetan, hitzak esanahiz hustu eta slogan bihurtu dizkiguten garaiotan, Joxe Mari kontrakarrean zihoan. Zentzu betean bizi zituen hitzak: euskara, hezkuntza, herria, konpromisoa, adiskidetasuna, maitasuna, zaintza. Hitzok elkarri josita bizi zituen: maitasunetik egiten zuen herrigintza, konpromisotik hezkuntza, beti irribarre bat begietan. Eta euskaraz. Zutabe zuen euskara. Egin zuen guztiaren sorburuan gure hizkuntza zegoen, ikastolan, aisialdian, materialetan... euskaraz ez bazen, ez zen. Osoki gorpuzten zituen *hik hasi* aldizkariak 0. alean aldarrikatu eta gaur arte mantendu dituen balioak, edukiz beteriko hitzak: “Euskalduna, nazionala, irakasleena, irekia eta plurala, bateratzailea eta independentea”.

Euskalduna, irekia, bateratzailea, burujabea... halaxe zen Joxe Mari. “Baina guztiaren gaintetik lagun bat galdu dut”, zioen Joxe Mari Agirretxe *Porrotzek*, hil hurrenetan, “adiskidetasuna nabarmendu nahi dut”. Haur-jolasen abestiek elkartu zituzten eta azken urteetan Bizipoza eta Oinherri proiektuetan bat eginda zeuden bi *Joxe Mari*-ak: “Ez da soilik gure lankide izan, gure laguna izan da. Sinesten zuen hezkuntza ez dela eskola eta familiaren egitekoa bakarrik, denok hezten dugula, eta koherentzia horretatik egin du beti lan, haurrak erdigunean jarritz —eta are gehiago haur horiek behar bereziak baldin badituzte—, beti gaztez inguraturua; gazteei entzuten zien eta berak esperientzia aportatzen zien. Horrela egin du bukaera arte, azken egunera arte eman du, eta lasai eta bakean joan da”.

“Banatzen gintuenari ez eta batzen gintuenari begiratzen zion beti, hori zen bere izateko eta lan egiteko modua —

“Joxe Mari Auzmendiren heriotzak kolpatu gaitu. LAB irakaskuntza lehen urratsetan zela, Gipuzkoako delegatu moduan aritu zen eta ondoren ere bidelagun izan dugu beti”

LAB irakaskuntza

“Pena handiz jaso dut Joxe Mari Auzmendiren heriotzaren berri. Euskal Herriko hezkuntzaren aldeko borroka eta lanean bidelagun bikaina”

Xabi Irastorza (ELA)

“STEILAS sindikatuaren izenean doluminak Hik Hasiko talde osoari, familia eta ingurukoei Joxe Mari Auzmendiren heriotzean”

STEILAS

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI

dio Josi Oiarbide adiskide eta sorreratik Hik Hasiko kide izan den irakasleak—. Bai maila politiko eta sozialetan eta baita harreman pertsonaletan ere. Ez zituen eztabaidak maite, banantzen gintuen hori ez zitzaion interesatzen. Elkar ulertzearen alde egingo zuen beti lan”.

Atzean egin zuen lan. Fokuetatik aparte beti, ez zitzaion protagonismoa gustatzen. Argantzundik Elizondora, Baigorritik Dimara, ikastetxez ikastetxe, lokatzetan ibiltzea gustatzen zitzaion, jostorratza eskuan, mataza luzea patrikan, irria haritzat harturik herria josten, lurralde, sare eta eredu ginetik. Gauza batek kentzen zion irribarra: min egiten zion gaurdaino hezkuntza munduan dagoen bereizkeriak, sareen arteko ezinikusiak. Eta horixe izan da ixtea lortu ez duen zauri bakanetakoa.

Baina baikorra zen. Erraietaraino baikorra. Morau kantariak Joxe Mariren agurrean Polloen argitu zuen lagunaren baikortasunaren misterioa: “Bi teoria ditut. Bata Obelixen teoria: Azkaraten txikia zela baikortasunaren lapikoan erori zela. Edo bestela, hona bigarren teoria: Patricio Etxeberrian kimikari lanetan ari zela bere esperimendu kimiko baten eragina jaso zuela”. Teoriak teoria, baikortasunak, ausardiak eta lanerako grinak egitera eramaten zuen: azken lanetako bat maiatzean argia ikusiko duen *Hezkuntza Adierazpena* sustatzea izan zuen, ezinikusiak gainditu, eta haurrak erdigunean jarri, guztiok hezkuntza eredu hobe baten bila jarriko gaituen adierazpen kontsentsuatua.

Egungo zatiketek hezkuntza galbidera daramatela ikusten zuen. Eta Joxe Mari begirada zorrotza zuen. Hori zen bere beste dohainetako bat: begirada eta sen estrategikoa zituen, sumatzen zuen nondik jo, nondik ez jo, zer gabezia, zer hutsune bete. Bazekin bidean haurrak erdigunean jarri behar zirela, eta pedagogia aurrerazaleak izan behar zirela akuilu aitzina egiteko. Hurrekiko miresmen eta errespetu berezia zituen, etorkizuneko herritar gisa ez, baizik eta gaur-gaurko herritar eskubidedun gisa ikusten zituen, eta subjektu horiek hezteko hezkuntzan sinesten zuen, eta idatzirik utzi zuen: “Ikasleak herritar autonomo, kritiko, irizpidedun, maitale, komunitatekide, errespetuzko eta identitadedun



Ikor Kobx

izatea izan behar dugu helburu, sustrairik eta ziurtasunik gabeko jendartean aurrera egiteko”.

Lanaren bidez ametsak egikaritzuz

Ameslaria zen Joxe Mari. Esna amets egiten duten horietakoa, baina batez ere amets horien alde lan egiten zuena, nekaezin lan. Ezer izan bada, langilea izan baita Joxe Mari. Orduak eta orduak eta orduak eman dizkio lanari, eta kilometroak eta kilometroak. Joxe Marirentzat hori ez baitzen lana, bizimodua baizik. “Dena egiteko zegoen”, gogoratzen du Arantxa Urbe irakasle eta Hik Hasiko kideak, 90etako hasiera haietan LABeko delegatu zela euskarazko pedagogia-aldizkari bat sortzeko asmoak kontatu zizkionean. “Dena eginez ikasi zuen, elkarrizketak egin, argazkiak atara, maketatu... enpresa bat sortu, iragarkiak eskatu... zoramen bat zen! Baina egin egiten zuen”. Ametsak egikaritze

“Korapiloa urdailean. Ez dakit herri honek dituen gaitasuntan horrenbeste sinesten duen eta sinetsarazten duen pertsonarik ezagutu dudan”

Paul Bilbao (Kontseilua)

“Jolasaren, euskararen eta hezkuntzaren gaitasun transformatzailearen defendatzaile sutsua. Hori da ohorea, hori! Eskerrik asko, Joxe Mari!”

Kepa Sarasola (UEU)

“Galera handia izan da Joxe Marirena. Askok eman dio euskarari, euskal kulturari eta euskal hezkuntzari. Langile nekaezina, beti izango dugu gogoan bera eta bere lana”

Joxemari Sors (Elkar)

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI

Soslaia

horretan, lanerako prestutasunaz eta begirada estrategikoaz gain, jendetasun handia nabarmentzen dio hainbeste urtean ondoan izan duen irakasleak: “Batere bitartekorik gabe egin zituen gauzak, baina estrategikoki zer hutsune bete behar zen bazekien eta horretarako kontaktu asko zituen, jendetasunerako dohain berezi bat baitzuen”.

Jendea zaindu egiten zuen Joxe Marik. Eta bere ondoan jendea zaindua sentitzen zen. Hala erakusten dute ikastaroetara atzerritik etorri izan diren emaleek Kataluniatik, Hungariako Pikler-Loczy institututik edo Argentinatik bidalitako dolumin-mezuek – “Joxe Marik ematen zuen maitasunarekin eta goxotasunarekin geldituko naiz galera beldurgarri honen aurrean, haren koherentzia eta grinarekin”, baina baita formazio eta ikastaro horietan parte hartu duten irakasle eta herritarren adierazpenek ere —“Nola zaintzen gintuen! Beti arduraz, beti goxo!”—. Ikasi egin zuen hori bidean Joxe Marik. Hik Hasiren lehen urteetako aztoramenduaren erdian “ezin da gaixotu!” zen langileen arteko lema, gerora, “osasuna da lehenengoa” errepikatzen zien lankideei. Ez zen izan kasualitatez, hain maitea zuen Bizipoza proiektuan antolatu zituen azken jardunaldietan jorratu zutena, Joxe Mariren ekimenez: elkarteen arteko

zaintza, nola gozatu, nola elkar zaindu.

Azken indarrak ere lanean, antolatzen, xahutu zituen. “Antolatzaile peto-petoa zen”, dio Urbek. Tafalla, Abaltzisketa, Arantzazu... puntarik punta hezkuntza josten eman zituen bere bizitzako azken asteak ere, oso gaixo egon arren. Ilusionaturik zegoen Errigora proiektuaren altzoan Hik Hasiren jardunaldiak Erriberara zabaltzeko egindako bi-dearekin; asebeterik, eskola txikietan egiten ari ziren lana bertatik bertara ikusirik eta horren berri aldizkari honetan emateko hartutako konpromisoarekin; gainera, bide berri bat zabaltzeko indarra izan zuen: irakasleei ezartzen zaien zamatik arintzeko esperientzia berri bat proposatu nahi zien irakasleei, eta berau antolatzeko Arantzazun ibili zen gauzak lotzen. Eta pozik zegoen, bereziki pozik, Oinherri sendoturik ikusita, zendu aurreko astean Tabakalera bildurik hainbeste sinesten zuen herri hezitzaileen proiektua loturik utzita. Pozik, bakean eta asebeterik joan da, joan nahi ez bazuen ere.

Irribarre batekin joan ere. Azkenera arte borrokatuta. Jostorratza zorrotz. Agurrean ere lezio bat eman digu Joxe Marik. Orain oroitzapenek beteko dute haren hutsunea.



Joxe Marik hain gustuko zuen kromletxa osatu zuten borobilean haren agurrera bertaratutakoek.

“Gure Joxe Mari maitea joan zaigu. Ez daukat hitzik, emozioa soilik, eta berarekiko, bere borrokarekiko eta koherenziarekiko miresmena besterik ez ditut”

Myrtha H. Chokler

“Pertsona handi bat galdu dugu, handietan handienetakoa. Hezitzaile eta pertsona aparta. Orain gure ardura da bere lanari eta bere legatuari jarraipena ematea”

Heike Freire

“Benetan ikaragarri tristea izan da Joxe Mariren galeraren berri izatea. Joxe Mari benetan pertsona handia zen”

**Leo Pahkin Finlandiako
Hezkuntza aholkularia**

Hik hasi, guk segi, Joxe Mari

*Agurrik ez eta ohore
Joxe Mari adiskidea,
Joxe Mari gurea,
Joxe Mari ederra.*

Non zaude gure Joxe Mari?
Non, herriaren eta herrigintzaren Joxe Mari,
euskal hezkuntzaren Joxe Mari,
ekintzaren eta norabidearen Joxe Mari,
baikortasunaren eta iraunkortasunaren Joxe Mari,
taldearen eta harreman goxoen Joxe Mari?

Unibertsoaren handitasunera hedatu zarelarik,
umezurtz baina zutaz beterik utzi duzu
gure unibertso txikia.

Oraindik zure usaina gurekin daukagularik,
zenbat botatzen zaitugun faltan dagoeneko, Joxe Mari!

Gure bihotzetako zauri gordinari darion malko bakoitza
zure bizi-indar oparoz beteta dago.
Izan ere, zure irria oparitu diguzu, betirako.
Oharkabea, gure barne baratzeetan txertatu dituzu
ekimenerako zure grina amaigabearen kimua,
zure bizi-poz eztiaren adaska,
eta zure barne-bakearen zuhaitza.

Eta hortxe zaude, hortxe bizi zara orain,
lehen ere hortxe baitzeunden,
gure baratzean bihotz, gure bihotzean baratz.
Gure parte zara jada.
Gu ere aspalditik gara pixka bat zu, Joxe Mari.
Eta zeinen eskertuta gauden
zurekin bidea partekatu ahal izan dugulako!
Eta bai pozik, bidean darraigularik,
gurekin izango zaitugulako,
gure maite Joxe Mari.

(Xabier Sarasua Hik Hasi kidea)



Amets bat

Hartu hondarra esku artean
ta badoa hatz artetik.

Hartzazu ura esku artean
baitz aldegin ertzetik.

Baina guk beste esakera bat
ikasi dugu etxetik.

Hartu amets bat eskutan eta
joan zaitetz bere atzetik.

(Joxe Mari Auzmendik hiru alabei
txikitan egindako olerkia)

“Bere zintotasunak, energiak,
eskuzabaltasunak eta
alaitasunak liluratu gintuen
lehen unetik. Hezitzaile baikor
eta apasionatua, elkarrizketa eta
lankidetzan sinesten zuena”
Timea Juhasz, Loczy institutua

“Eskuzabaltasun paregabeko
pertsona, bere izaera adeitsu
eta konprometituagatik distira
egiten zuen”

**Montse Fabres, Pep
Molsosa eta Rosa Vidiella
(Katalunia)**

“Asko sentitzen dugu,
benetan, Joxe Mariren
galera. Hutsune ikaragarria
sentitzen dugu. Besarkadak
Galiziatik”

**Sechu Sende (Galiziako
Semente proiektua)**

GAIA:

JOXE MARI AUZMENDI

Abaltzisketako Txalburu eskola txikira bisita

Plazeretik jakin-minera

Urtarrilaren 31an Abaltzisketako Txalburu eskola ezagutzera joan ziren Joxe Mari Auzmendi eta Mikel Agirrezabala Hik Hasitik. Ikusitakoa, bizitutakoa eta gozatutakoa guztiakin partekatu nahi izan zuen Joxe Marik, eta honako artikulua idatzi zuen. Txikitan Legazpiko Telleriarte auzoko eskola txikian ibili zen bera, eta adin desberdinetako umeak elkarrekin bizitako esperientzia eta ikasketa aberasgarriak izan zirela aipatu izan zuen behin baino gehiagotan. Abaltzisketako eskola txikiko giroarekin eta lan egiteko moduarekin ere liluratuta etorri zen. Eskola txikiak, baina proiektu handiak. Zaindu beharreko altxorak.



Urtarrilaren 31n Abaltzisketako Txalburu eskola ezagutzera joan ginen Hik Hasiko bi kide. Izan ere, sei ikasturte daramatzate *100 lengoia 11 esperientzia* proiektuan murgilduta. Zizurkilgo San Millan eskolarekin batera jarri zuten martxan proiektua, eta nahiz eta bakoitzak bere bidea egin duen, aldaketa nagusia bietan berbera izan da: proiektu bidez irakastetik tailer modura eta adin aniztasun osoan aritzera igarotzea. Proiektu honen garapena ezagutzeko nahia genuen.

Abaltzisketak (Gipuzkoa) hirurehun biztanle inguru ditu eta 2 eta 12 urte bitarteko 30 ikasle eskolatzen dira herrian. Eskola ordutegia, goizeko 9:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 14:30etik 16:00etarako da.

Goizeko 11:30ean ireki dugu eskolaren atea. Etxe arrunt bateko hall-a edo sarrera aurkitu dugu. Bertan bizi direnen jantziak eta zenbait oinetako ikusi ditugu, baina ez dago inor bertan. Goiko solairuetan zerbait entzuten da, eta oso giro lasaian dago guztia. Lehenengo solairura igo eta leiho batetik sartzen den eguzkiak gortina txuria distiratsua eta txuriago egiten du. Gero jakin dugu ikasleen txoko preziatua dela eta han pasatzen dutela denbora irakurtzen, idazten, hitz egiten, jolasten eta abar.

Gela guztietako ateak irekita daudenez, lehenengoan begiratu eta galdetu dugu. Han Leire Arreseigor hezitzairekin elkartu gara, ongi-etorria eman eta halaxe esan digu: “Ate guztiak irekita dituzue eta dena behatzen ibil zaitezke lasai asko.”

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI



Hala, hurrengo gelan murgildu gara. Liburutegia da. Bertan eskolako ikasle zaharrenak ikusi ditugu eta askotariko lanak egiten ari dira banaka zein taldeka. Ikasle bat eskolan dituzten liburuak katalogatzen ari da: liburuaren izenburua, zer kontatzen duen, zein adinekoentzat den egokia, hizki xehez edota larriz idatzita dagoen eta abar. Liburuak irakurtzea atsegin du eta ezagunak ditu katalogatzen ari den ipuinak, lana gustura egiten ari dela nabaritzen da. Tarteka, tailerreko irakasle arduraduna zuzentzen zaio ea laguntzaren bat behar duen adierazteko. Beste ikasle taldetxo bat beraiek sortutako animalien inguruko testu bat errepasatzen ari dira, elkarrekin testua hobetzeko proposamenak egiten dituztelarik. Aurrerago, ikasle bat euskarazko liburu bat gatzelaniara itzultzen ari da eta bukatzean ordenagailuz pasako duela azaldu digu.

Gelatik ateratzera gindoazela, 10 urteko mutil bat etorri zaigu leopardoen familien gainean liburutik jasotzen ari den informazio interesgarriarekin sortzen ari den koadernoak erakustera. Gustura ari da eta gurekin partekatu nahi ditu bere lana eta poza.

Pareko gelan, Arte Tailerra izendatuan, Maite irakaslearekin beste ikasle talde bat Ingeleseko saioan dago. Taldetxo bat jakien izenak lantzen ari da jolasen bitartez. Ondoko mahai batean, berriz, beste haur talde bat janari osasuntsuen eta ez osasuntsuen sailkapena egiten ari da.

Tailerren aldaketarako ordua iritsi denez, gelak ezagutzen jarraitu dugu. Bigarren solairura igo gara eta han Zientzia tailerra, Sukaldea eta Aroztegia ikusi ditugu.

Korrika batean azaldu dira eskolako ikasle txikiak eta bi tailerretan banatu dira: Zientzia tailerlean eta

Aroztegi tailerlean. Ikasle hauek Mugimendu Tailerretik datozela eta hau, hura eta bestea egin dutela esaten hasi dira. Ane hezitzaileak ez du asko galdetu behar izan haurrak hitz egiten hasteko. Izan ere, norberaren gorputzetik eta bizipenetik bizi den hori adieraztea behar-beharrezko bihurtzen da. Eta, ba al dago ahoz-kotasuna lantzeko modu egokiagorik barruko beharretatik sortutakoa adieraztea baino? Badute zer kontatua, sentsazioak, harremanak, emozioak eta erronka berriak izan dituztelako. Behin lasaitu direnean, bakoitza Zientzia tailerlean egingo duena azaltzen hasi da: nahasketak, itzalekin esperimentatu, arrainei ura aldatu, mikroskopioan xomorroak behatu... Tartean, tailerreko arduradunak proposamen bat egin die: “Zer iruditzen zaizue gaur denontzako gaitetak egiten baditugu?. Orea goizean prestatu da

GAIA: JOXE MARI AUZMENDI

Abaltzisketako Txalburu eskola txikira bisita



eta orain zuek egoki ikusten dituzuen formak eman eta sukaldeko labean sartuko ditugu". Denak animatu dira ekintza honetara.

Handien taldea mugimenduaren gelara joan dela aprobetxatuz, eskolatik gertu aurkitzen den Mugimendu tailerrera abiatu gara. Hura festa! Jolas-material askotarikoa dago eta ikasleek beren kabuz aukeratu dituzte haien gogoko espazioa eta tresneria. Bik, ibilbidea prestatu dute, besteak beste uztatekin jolasean dabilta, beste bi ikasle ping-pong-ean aritu dira, beste hainbat Anetxu irakaslearekin koltxonetan akrobazia jolasak egiten hasiak dira, beste talde bat ezkutalekuak prestatzen eta babesa sentitzen, eraikuntzak egiten, blokekin jolastan eta abar. Eta, beirak banatzen duen barruko espazio batean, neskato batek bere gustuko musika aukeratu du eta bere kasa ari da dantzan. Anetxu hezitzailearen arabera, ikasle hauen adina aurrera badoa ere, eta, teoriarik gairik jakin batean aurkitzen badira ere, sinbolizatze beharra sentitzen dute eta horretarako askatasun espazioa izateak badu bere garrantzia era integralagoan garatzen joateko.

Behatu dugunez, goizean ikasleak

talde zehatzetan aritzen dira tailerretan. Horrela, irakasleek aukera dute zenbaitetan proposamen bideratuak egiteko eta astez aste lanei jarraipena emateko. Horrek taldean aritzeko aukera ematen diela kontatu digute.

Eskolaren funtzionamenduan eta ordutegian aldaketak etengabe egiten dituztela adierazi digute irakasleek. Eskolaren printzipio nagusiak beti oinarri izanda eta horiek bermatze aldera egiten dituzten aldaketak hobekuntza modura bizitzen dituzte.

13:00ak dira eta bazkaltzeko ordua iritsi da. 13 ikasle etxera joango dira, eta beste 17ak, eskolaren eraikuntza berean dagoen jatetxean geratuko dira bazkaltzera. Hala, herriko ekosistema ekonomikoan ere laguntza eskainiko dute.

Guraso bat agertu da bere umearen gainean zerbait aipatu nahian. Hiruzpalau irakasle gerturatu dira berarengana eta hitz egiten aritu dira giro ederrean ordu laurden inguru. Argi ikusten da etxekoan aipamenei, oharrei, esanahiei, kezkei eta abarrei garrantzi handia ematen dietela, etxea baita lehen babesa eta ziurtasun habia eta hazierako eta heziketarako gunerik garrantzitsuena. Eta, hori, Txalbu-

ruko hezitzaileak kontuan hartzen eta errespetatzen ahalegintzen dira.

Tailerra aukeratzeko unea

Bazkaldu ostean, eguzkia dagoela probestuz, eskola aurrean elkartu dira guztiak, hezitzaileak eta ikasleak. Arratsalde horretan zein tailer irekiko diren ezagututa, hautaketa libre egin dute, adina kontuan hartu gabe, bakoitzaren gustuko tailerra aukeratu: gaurkoan Aroztegi tailerra, Arte tailerra edo Liburutegia. Denak eskolara abiatu dira poz ederrean, bakoitza bere egitasmoa, nahia, gogoia edo ametsa gauzatzeko asmoz.

Gure bisita-egun honetan, Aroztegi tailerrean hiru ikasle horman apal bat jartzen ikusi ditugu, elkarlanean ari zirela antzeman zitekeen, batek taladroa eusten zuen bitartean besteek apala heldu edota aholkuak ematen zituzten. Beste zenbait ikasle esku-zerrarekin lanean ikusi ditugu. Neskato batengana gerturatu garenean, aurrez neurtutako eta diseinatutako eltzeitsu baten pieza mozten ari dela adierazi digu. Beste zenbait ikasle eraikuntza gunean ikusi ditugu kanika pista edota egurrezko hainbat eraikuntza sortzen.

Arte tailerrean artilezko lepoko bat egiten ari da 8 urteko ikasle bat, aldamenean 3 urteko ikasle bat adi-adi begira duela. Josteko makina ere badute tailerrean eta bertan beste bi ikasle euren karterak sortzen eta josten ari dira. Giro lasaian mahaian nahiz horman duten kortxo handian hainbat ikasle ere ikusi daitezke beraien arte adierazpenak sortzen.

Liburutegian hitzak bilatzen, asma-kizunak aurkitzen, jolasak sortzen eta abar aritu dira, baina ikasleen artean adin tarte handia dagoenez, momentu askotan neska-mutil handienek irakasle-hezitzailearen rola jokatzeko

dutela ikusten dugu, horrek guztiak duen aberastasunarekin. Besteak beste, 5 urteko zenbait ikasle animalien inguruko liburu bat ikusten ari dira eta bertan zer jartzen duen galdetzen diote ikasle zaharrago bati.

Guk ikasleak oso etxeko giroan, lasaian, ikusi ditugu. Batzuk etxeko zapatilak jantzita ikusteak etxeko giroa are gehiago gogoratzen digu. Ikasteko gogo handiz ikusi ditugu haurrak, erronka berrietara irekiak, ikertzaile, eta tailerren bidez egindakoari bizitzarako baliagarriak diren egitasmoak edo helburuak jartzen eta egiten.

Oro har, maiz, eskola txikia, emaitza txikiarekin, eskasarekin lotzen da, mundu honetan handitasunak soilik balio beharko balu bezala. Baina egindako ikerketa apurretan ikusi da eskola txikietan lortzen direla emaitzarik onenak. Ez soilik giroan, harremanetan, gurasoekiko konplizitatean, herriarekiko inplikazioan eta elkarlanean, baita emaitza akademiakoetan ere.

Beraz, Eskola Txikiak zaindu beharreko altxorra dira eta bide horretan jarrai dezaten animatzen ditugu. Bada sakoneko ikerketak egiteko eta benetako errealitatea ezagutzeko garaia Euskal Herrian. Unibertsitateek helduko al diote erronka horri? Benetako ekarpen objektiboa egingo lukete.

Plazera izan da Abaltzisketako Txalburu eskola barrutik ezagutzea. Plazera sentitu dugu haur eta gazte-txoengan, eta jakin-mina ikusi dugu haien begietan. Ba al da informatzeko, bilatzeko, ikertzeko, kontrastatzeko eta jakinduria hartzeko jakin-mina izatea baino bide hoberik?

“Txalburu eskolako irakasleak eta ikasleak zorte onekoak sentitzen gara Joxe Mariren bisita eta bere hitz aberats eta hunkigarriak jasotzeko aukera izateagatik. Mila esker, bene-benetan.”





“Pertsona bezala joanda, konektatu egiten dugu; irakasle edo psikologo bezala joanda, ez”

ELKARRIZKETA:

ENRIQUE

M. REGUERA

PSIKOLOGOA ETA PEDAGOGOIA

Psikologoa, filosofoa, pedagogoa eta idazlea da Enrique Martinez Reguera galziarra, baina berak azpimarratzen duen moduan, “denen gainera pertsona naiz”. 60 urte pasa ditu hezkuntza-arloan lanean, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan eta unibertsitatean, baina laster konturatu zen inork nahi ez zituen ume zailekin moldatzen zela ondoen. “Ez dakit zergatik, baina ongi moldatzen nintzen ume zailekin, egokitu gabekoekin eta abar, eta horiekin lan egitea erabaki nuen”.

Urte luzez ibili da zaurgarritasun-egoeran dauden haur eta nerabeekin lanean, Madrilan gehienbat, han bizi delako eta han lan egin duelako. Etxean hartu izan ditu epaileek eta erakundeek bidalitako umeak, haiekin bizi izan da. Eta argi eta ozen dio ikasi duen guztia ume horiek erakutsi diotela, ez unibertsitateak. Haiekin ikasitakoa partekatu zuen Donostiako EHUaren aretoa gainezka zuelarik eta, orain, elkarrizketa honetan xehetu ditu bizitu eta ikasitakoak.



Nola hasi zinen egoera zaurgarrian zeuden umeekin lanean?

Madrilgo ijitoen auzo batean ume zailekin erlazionatzen hasi nintzen. Nire etxean hartzen nituen, eta haiekin bizi nintzen. Garai hartan, 60ko hamarkadan, babes-batzordeak deitzen ziren erakundeetakoek jakin zutenean, niregana jo zuten. Gainera, ni unibertsitatetik nentorren, prestigioa nuen, eta galdetu zidaten ea tutoretza-zentroetan egokitzen ez ziren mutikoak hartu nitzakeen. Baiezkoa erantzun nien, eta etxea mutil koskorrez bete zidaten. Garai hartako tutoretza-epaileak ere jakin zuen tutoretzan zeuden umeak hartzen nituela, eta hark ere galdetu egin zidan: erreformatorioko mutilak hartuko zenituzke, inongo erreformatoriotan kabitzen ez direnak, inon nahi ez dituztenak? Baietz esan nion, baldintza batekin: nirea etxe bat zela eta ez geneukala zerikusirik justiziarekin.

Baldintza onartu zidaten, eta inongo erreformatoriotan kabitzen ez ziren mutikoak bidaltzen hasi zitzaizkidan, egunero egunkarietan agertzen ziren umeak, *Madrilgo gaizkilerik arriskuetsuenak* –Guille, Gasolina, Mosque, Pipi...–. Horiak guztiak nire etxetik pasa ziren.

Azken hamarkadetan, gizartea eta bizimodua aldatuz joan dira, eta zuk beste aldaketa bat ere azpimarratu izan duzu: legedia. Umeen eta gazteen gainean sortu den legediari ez diozu inolako onurarik ikusten.

Halaxe da. 80ko hamarkadan, haurren gaineko legeak egiten hasi ziren. Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Legea sortu zen aurrena, gero Adingabeen Lege Penalak, eta, ondoren, oso zuzenean eragiten digun beste bat: Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Dekretua.

Nire iritziz, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Legea familien babesgabetasun juridikoari buruzko legea da. Familia guztiak estatalizatze saiakera bat da, familia batzuei eskubide guztiak eta babes juridiko guztia kentzen baitie. Urte asko daromatzat lege horren kontra borrokan, ezer lortu gabe, noski; Europa guztian lege bera dago, eta uste dut mundu-mailako proiektu bat dela.

Adingabeen Lege Penalarekin gauza bera gertatzen da. Lehen, umeak 16 urtera arte ezin ziren inputatuak izan. Umeak zirenez, ez ziren errudunak. Adingabeen Lege Penalarekin, 13-14 urtetik 18 urtera arteko tarte berri bat sortu da, eta horiexei zuzentzen zaie

legea. Horren ondorioz, nire ustez, babes juridiko guztia kendu zaie gazte horiei 13 urtetik 18 urtera bitartean. Orain, lege berezi bat dago haientzat, eta demokrazia guztietan dakigu zeinen arriskutsuak diren lege bereziak, batez ere biztanle jakin batzuentzat sortutakoak.

Adingabeen Lege Penalak gauzei beste modu batera deitzeko trikima-lua erabiltzen du. “Atxiloketa” erabili beharrean, zehazkiago definitutako kontzeptu juridikoa, “atxikitzea”, erabiltzen du umeen kasuan, eta kontzeptu hori juridikoki existitzen ez denez, nahi dutena egiten dute. Gauza bera gertatzen da “galdeketaekin”. Galdeketa zer den oso ongi definituta dago legeetan, baina ume baten kasuan ez dago galdeketa, “esplorazioa” baizik. Eta inork ez dakienez zer den hori, bada kolpeka ere egin daiteke.

Azken batean, esan nahi dudana da Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Legeak babesik gabe uzten dituela familiak, Adingabeen Lege Penalak babesik gabe uzten dituela adingabeak, eta, hezkuntzaren esparruan sartuta, Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Dekretuak, nire ustez, hezkuntza ahitu duela.

Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Dekretuak hezkuntza ahitu duela diozu. Baieztapen gogorra da, ezta?

Bai, gogorra, latza, izugarria, baina halaxe dela uste dut. Pedagogia eta zuzenbidea, batez ere zuzenbide penala, oso diziplina garrantzitsuak dira biak. Pedagogia beharrezkoa da hezkuntzan, eta zuzenbidea, baita zuzenbide penala ere, ezinbestekoa da, oso beharrezkoa den diziplina da. Baina erabat desberdinak dira. Are gehiago, bateraezinak dira. Pedagogia dagoen lekuan ez dago zuzenbide penalik, eta zuzenbidea dagoen lekuan ez dago pedagogiarik. Biak batera ez dira kabitzen.

Pedagogiak helduen barnetik umeen barnera joatea lortu nahi du. Hezkuntza edo heziketa batetik bestera joanaraztea bezala da pedagogia; helduok geure printzipioak, geure iritziak, geure irizpideak, geure balioak, geure ohiturak... haurrei erakusten saiatzen gara. Gero, umeek horri guztiari galbahea pasako diote, guretik desberdina den beste garai batekoak direlako, eta interesatzen zaiena erabiliko dute. Baina, printzipioz, pedagogiaren muina intimoa da. Nire barrukoa haurren barruan sartzen saiatzen naiz, nahiz eta gero eurek nahi dutena aukeratuko duten.

Pedagogia, nagusiki, konplizea da: helduari interesatzen zaiona umeari interesatu behar zaio, eta umeak behar duena eta interesatzen zaiona helduari interesatu behar zaio. Gurasoen eta seme-alaben eta irakasleen eta ikasleen interesek bat egin behar dute, bestela bakoitzak bere aldera jotzen du, ez dute topo egiten, eta horrela ez dago inongo heziketarik eta hezkuntzarik. Horregatik, pedagogiaren muina intimoa edo barnekoa da, pertsona modura eragiten diguna, inplikatu eta konprometitu egiten gaitu barrutik.

Aldiz, zuzenbidea guztiz kontrakoa da, kanpokotasuna baizik ez da. Lege bat egiten den unetik, behartu egiten gaitu, nahiz eta lege hori ez ezagutu. Ba al dago gurekin zerikusi gutxiago duen beste ezer? Ezagutu ere egiten ez dugun zerbait da, eta, hala ere, behartu egiten gaitu. Zuzenbidea kanpokotasuna besterik ez da, kan-

poko inposizioa baino ez. Ez dauka zerikusirik lehen aipatzen genuen intimitatearekin. Zuzenbidea konplizitatearen aurkakoa da, noski, erabat bateraezina da. Irudikatu dezakezue gaizkilearen konplizea edo laguna den epailerik?

Gauzak horrela, zuzenbideak hezkuntzari edo heziketari lekua kendu diola uste duzu?

Esan nahi dudana da Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Dekretua, izenak argi erakusten duen moduan, dekretu bat dela, eskubideen dekretua. Hau da, jada zuzenbidez ari gara hizketan, ez pedagogiaz. Une batean, estatuek, Europakoek eta Amerikakoek behintzat, mundu zaila zetorrela ikusi bide zuten, konplikaturik, elkarbizitza zailekoa, eta esan bide zuten: hezkuntzak jada ez du balio. Hezkuntza Ministerioak hezkuntzan sinesteari utzi diola ikusten da. Hezkuntza zuzenbidearekin ordezkatzearabaki du, kanpoko zerbaitekin, inposatutako zerbaitekin, zorrotza den zerbaitekin, gurea ez den zerbaitekin. Horrela esanda izugarria dirudi; alegia, Hezkuntza Ministerioa eta Justizia Ministerioa ados jarri direla hezkuntza eskubide eta betebeharren katalogo bihurtzeko.

Zer ondorio ekarri ditu horrek?

Bada, konplizitatea eta intimitatea desagertu direla. Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Dekretua atera zutenean, haurrak berehala ohartu ziren zerbait aldatu zela: lehen, irakaslea euren laguna zen, dena intimoa zen, sekretuan mantentzen zen, interes berberak zituzten, eta, bat-batean, irakasleek arautegi bat bete behar zuten eta ikasketen eta diziplinaren zaindari bihurtu ziren.

Gobernuak oso garbi zeukan hezkuntzari intimitatea, konplizitatea eta autonomia akademikoa kendu nahi zizkiola, eta horren ordezkari, legeak, dekretuak, eskubideak, betebeharrak eta abar ezarri. Hain argi zeukan, non gobernuak erabiltzen hasi zen prozedura guztiak polizia eta epaileak zein garrantzitsuak ziren argi uzteko izan baitziren, eta haurrak, familiak eta irakasleak zein garrantzituak ziren erakusteko.

“Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Legeak babesik gabe uzten ditu familiak, Adingabeen Lege Penalak babesik gabe uzten ditu adingabeak, eta hezkuntzaren esparruan sartuta, Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Dekretuak, nire ustez, hezkuntza ahitu du”

“Pedagogia dagoen lekuan ez dago zuzenbide penalik, eta zuzenbidea dagoen lekuan ez dago pedagogiarik. Biak batera ez dira kabitzen”

“Gurasoen eta seme-alaben eta irakasleen eta ikasleen interesek bat egin behar dute, bestela bakoitzak bere aldera jotzen du, ez dute topo egiten, eta horrela ez dago inongo heziketarik eta hezkuntzarik”



Ez da kasualitatea garai horretan Madrilgo ikastetxeetara zirkulazioaz hitz egitera poliziak joatea. Irakasleak hain ezdeusak eta hain ergelak bihurtu ziren, non zirkulazioko poliziak joaten ziren zirkulazioko lezioak ematera. Zer gertatzen da? Hezitzaileek ez dakitela bidea gurutzatzen erakusten?

Hizkuntza, hizkera eta kontzeptuak aldatzea ere ekarri du horrek guztiak, ezta?

Bai, erabat. Uste dut erabiltzen den hizkuntza oso hezigarria dela eta kontuz ibili behar dugula erabiltzen ditugun hitzekin, zeren gure burmuinak, gustatu edo ez, gauzak hitzen arabera jakiten ditu edo ez. Guk hitzak erabili behar ditugu; beraz, gure hitzen jabe den hori gure burmuinaren jabe bihurtzen da. Esate baterako, ni ume nintzanean eta gero irakasle lanetan hasi nintzanean, umeak ume

ziren. Ume, haur, mutiko, neskatxa... deitzen genien. Haurrak hori guztia ziren. Gaur egun, beste kontzeptu bat dago: adingabea. Kontzeptu juridikoa, penala eta zibila da. Adingabeez hitz egiten dugunean, zuzenbideaz ari gara, eta, haurrez hitz egiten dugunean, gure seme-alabez ari gara. Begira zer alde dagoen bien artean! Eta kontua da *adingabe* kontzeptua gehiago erabiltzen dela, gure burmuinean sartuta dagoela.

Testuinguru horretan egin duzu lan haur "zailekin". Zer eman dizute?

Dakidan guztia. Dakidan guztia eta kontatzen dudana guztia nire etxetik pasatako haurrek erakutsi didate. Ez dit ezer erakutsi ez moralak, ez justiziak, ez zuzenbideak, ez erakundeak, ez eskolak, ez unibertsitateak. Nire bizitzarekin zerikusirik ez zuten bizitzak zituzten, eta zerotik hasten eta bizitzaren ikuspegia haiengandik

hasita berreraikitzen erakutsi didate.

Horrela entzunda, polita ematen du, baina zuk haiekin izan duzun elkarbizitza ez da posible izan beste askorentzat; ezin izan dute haur 'zailekin' bizi; zuk bai. Zer irizpide erabili izan dituzu? Zer erakutsi diezagukezu?

Erabili ditudan hainbat "trikimailu" aipatuko nituzke: aurreiritziak deseraiki, pertsona gisa jokatu, umearen beharrei begiratu, irtenbide koherenteak bilatu, portaeraren eta harremanen arteko lotura ulertu, haurren lekuan jarri, haurren alde egin, haurrentzat esanguratsuak izan, sen ona berreskuratu eta elkarrekin sentitu, eta arrakasta neurtzeko modua aldatu.

Aurreiritziak deseraikitzeak zenbat aldatzen du harreman baten abiapuntua?

Erabat. Nik etxeko umeekin erabili behar izan nuen lehen trikimailua izan zen. Zeren, konturatu gabe, umeek gure kontrako aurreiritziak dituzte, eta guk haien kontrakoak. Lehen aipatu dudana moduan, umeek pentsatzen dute irakasleak aginduz eta diziplinaz beteta daudela. Uste dute irakasleak eurei agintzeko, euren bizitza antolatzeko eta zuzentzeko daudela, eta ez dutela interesik jakiteko zer sentitzen duten, zer bizitzen duten edo zer duten. Umeen bizitzan dauden bi gauza dira ikasketak eta diziplina, baina, horrez gain, haurrek desirak, beldurrak, sentimenduak, itxaropenak, etab. dituzte.

Elkar ezagutu behar dugu, zer gertatzen zaigun jakin, eta bestea ulertu behar dugu, harengandik abiatuta. Aurreiritziz beteta baldin bagaude, harresi bat daukagu, eta ez gara bestearengana iristen. Beraz, aurreiritziak alde batera uzten hasi behar dugu. Ahalegin ikaragarria eskatzen du, aldatzera behartzen baikaitu.

Bigarren trikimailu modura pertsona gisa jokatzeko aipatu duzu.

Irizpiderik garrantzitsuenetako bat da: bizitzan zehar eta gure ikastetxeetan pertsona gisa jokatu behar dugu. Ni psikologoa izan nintzen, eta haur bat eta haren familia artatzen nituenean, ni psikologoa nintzen, jakintsua; haiek, ostera, eroak, psikologoaren

laguntza behar zutenak. Irakasle gisa aritu nintzenez, ni nintzen irakasten zuena, azkarra, eta haiek tontoak, ikasi behar zutenak. Nagusitasunezko hierarkia zegoen. Hezi gaituzten hezkuntza-sisteman beti dago funtsezko aldagai erabakigarria: hierarkia eta nagusitasuna.

Aldiz, pertsona gisa hurbiltzen baldin banaiz haur batengana, kon-turaturako naiz haurrak desirak dituela, beldurrak dituela, itxaropenak dituela. Neuk ere desirak, beldurrak eta itxaropenak ditut. Beraz, berdinak gara. Eta, horretaz jabetuta, erraza da elkarrekin konektatzea. Pertsona bezala joanda, konektatu egiten dugu. Irakasle edo psikologo bezala joanda, ez.

Ikastetxe batean, haur guztiak gogoratzen ziren irakasle jakin batekin. Zer dela-eta? Irakasle hark gainerakoek bezala irakasten zituen Matematika eta Gaztelania, titulazio berbera zeukan, eta ordutegia ere berdina zen. Baina, haur bat erdi lo ikusten zuenean gelan, galdetu egiten zion zer gertatzen zitzaien. “Erdi lo egon zara, zer gertatzen zaizu?”, “Uf, atzo gauean aita mozkortuta iritsi zen etxera, eta iskanbila handia sortu zuen”. “Nahi duzu berarekin hitz egitea?” “Ez, ez, okerrago izango da”. “Beno, ba gero hitz egingo dugu ea zer irtenbide aurkitzen diogun”. Irakasle hark, Matematikako eta Gaztelaniako irakaslea izateaz gain, baze-kien haurrek beste gauza asko behar zituztela eskolaz gain. Irakasle hura haur haien ondoan zegoen. Beste pertsonen baldintzekin ondo konektatzen zuen pertsona zen. Horregatik zuten ikasleek ere irakasle haren beharra, harekiko gertutasuna eta estimua.

Pertsona gisa joan behar dugu bizitzan, ez irakasle, psikologo edo katedratiko gisa. Pertsona gisa joan behar dugu, beste pertsonari erraza egin dakion elkarrekin ditugun gauzetan gu aurkitzea; eta gauza asko dira elkarrekin ditugunak.

Irakasleok gure pertsona izaera berreskuratu behar dugu haurrekin, gure intimitatea. Irakasleok umeentzat gaude, pertsonatik pertsonara. Eta gurasoentzat gaude, pertsonatik pertsonara. Gaur egun, gurasoen eta ikastetxeen arteko harremana lehen

baino okerragoa da. Eskola asko ez dira gurasoek fidatzen, eta guraso asko ez dira eskolek fidatzen. Intimitatea puskatu da, konplizitatea hautsi da, eta horixe da pedagogiaren muina. Horregatik, haurrekin eta haien gurasoekin konplizitatea berreskuratzen ahalegindu behar dugu.

Horrek haurren beharrei begiratzen lagunduko digu, eta horixe da aipatu duzun hirugarren irizpidea.

Bai, hala da. Ez da gauza bera irakasle batek behar duena eta ikasle batek behar duena. Normalean, irakasleok behar duguna da soldata irabaztea. Eta protokoloa betetzeak bermatzen digu soldata; hau da, eskola emateak, irakatsi behar duguna irakasteak eta kontrolatu behar duguna kontrolatzeak. Baina, batzuetan, haurrak horien aurretik dauden beste gauza batzuk behar ditu: haurrak behar duena eta irakasleak behar duena ez datoz bat. Garrantzitsua da irakaslea kezkatzea haur jakin batek berarengandik behar duenagatik, eta ez berak soldata irabazteko behar duenagatik. Erne! Soldata edukitzea lehendabiziko eskubidea da, eta beharra ere bai, ez diezaiola inork uko egin soldataz kezkatzeari. Baina haurrak aintzat hartzea ez da nahitaez soldatak zuri bermatzen dizuna egitea.

Irtenbide koherenteak bilatzea ere aipatu duzu elkarbizitzarako lagungarri moduan. Zer esan nahi duzu irtenbide koherenteak bilatzearekin?

Arazo pedagogikoek irtenbide pedagogikoak behar dituzte, ez psikologikoak eta ezta juridikoak ere. Arazo psikologikoek soluzio psikologikoak behar dituzte, ez pedagogikoak, polizialak edo juridikoak. Arazo juridikoek irtenbide juridikoak behar dituzte, ez psikologikoak edo beste jatorri batekoak.

Baina Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Dekretua asmatu zutenean, beste gauza bat ere asmatu zuten: bideratzea. Ikasle batek gelan enbarazu egiten badu, irakasleak dakiena egiten du. Horrek ez badu funtzionatzen, agian ikasleari psikologoaren beharra duela esaten diote. Orduan, gelan enbarazu egiten duen ikasle bat duelako arazo pedagogiko

“Umeen bizitzan dauden bi gauza dira ikasketak eta diziplina, baina, horrez gain, haurrek desirak, beldurrak, sentimenduak, itxaropenak, etab. dituzte”

“Gure umeek nabaritu egin behar dute asko inporta zaizkigula”

“Arazo pedagogikoek irtenbide pedagogikoak behar dituzte, ez psikologikoak eta ezta juridikoak ere”

“Gauzak ez badoaz bere onetik, umeak aldatu behar duela erakutsi digute. Eta zergatik ez irakasleak, harremanaren erdia izanik? Aldaketaren erdia ikasleak egin beharko du, eta beste erdia irakasleak”



bat duen irakasleari psikologoarengana bideratzeko aukera ematen diote. Behin psikologoarengana bideratuta, irakaslea gustura gelditzen da, jada ez daukalako arazorik. Orduan, eskolako psikologoak umea eta familia aztertzen ditu, eta txosten bat egiten du. Behin txostena eginda, psikologoak bere eginbeharra bete du.

Txostena egiteak arazoa konpontzen badu, nahikoa da. Baina normalean ez da horrelakorik gertatzen. Orduan, Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Dekretuak atea irekitzen du: bideratzea. Eta honela esaten du: jada ez da eskolaren arazoa, eskolak txosten pedagogikoa, psikologikoa eta soziala behar ditu, eta horrek udalera pasa behar du. Orduan, udalak psikologo bat, pedagogo bat eta gizarte-langile bat bidaliko ditu. Horiekin guztiekin, jada hiru txosten egin dira.

Txosten horiek arazoa konpontzen baldin badute, primeran. Bestela, Dekretuak dio: jada ez da udalaren arazoa, komunitateari pasa behar zaio. Eta komunitateak psikologo bat, pedagogo bat eta gizarte-langile bat bidaliko ditu. Horiek txosten bana egingo dute. Bederatzi txosten jada (eskolakoak, udalekoak gehi komunitatekoak).

Txostenekin arazoa konpontzen bada, kito, hor bukatzen da dena. Baina konpontzen ez bada, Dekretuak esaten du ume hori oso zaila dela eta adingabeen epaitegira joan behar duela. Adingabeen epaitegiak hiru txosten egiteko aginduko du: pedagogikoa, psikologikoa eta soziala. Jada hamabi txosten ditugu.

Bien bitartean, urteek aurrera egiten dute, eta ikaslea gero eta hondoratua dago. Eta une bat iristen da, non jada ez den adingabeen epaitegiari dagokion gaia, haurra hazi egin baita. Orduan, zer gertatzen da? Badirudi ez dela ezer gertatzen, inork ez baitu esku hartzen. Baina benetan ez da ezer gertatzen? Gazte hori eta haren familia erabat kriminalizatuta gertatzen dira. Zeinen anormala izango den haur hori eta haren familia lau hezitzaile, lau psikologo eta lau gizarte-langile pasa eta ezer ez lortzeko. Haur hori munstro bat da. Eta, hortik aurrera, munstroez arduratzen diren erakundeetara pasatuko da. Zoriak markatuta pasatuko da.

Arazoa beste norabait bideratzea zoragarria da: arazoa begien bistatik kentzen dugu.

Portaeraren eta harremanen arteko lotura ulertzeaz ere jardun duzu.

Ingurukoekin dituzten harremanek umeen portaeretan eragina dutela esan nahi duzu?

Bai, bizitzan dena da erlazioa, eta izatera iristen garen guztia gure harremanen ondorioa da. Geure harremanen produktu gara. Eta erne, harremana beti biren artekoa da. Gutxienez bi alde dira beharrezkoak. Eta hezkuntza edo heziketa ez da salbuespena: irakaslearen eta ikaslearen arteko harremana da hezkuntza. Eta berriro diot, bi dira; irakaslearen biografia eta ikaslearen biografia; irakaslearen nozioak eta ikaslearen nozioak; bienak.

Gauzak ez badoaz bere bidetik, umeak aldatu behar duela erakutsi digute. Eta zergatik ez irakasleak, harremanaren erdia izanik? Aldaketaren erdia ikasleak egin beharko du, eta beste erdia irakasleak.

Haurraren lekuan jartzea ere garrantzitsua da. Horrek ere asko laguntzen du bizikidetzan.

Bai, oso garrantzitsua da haurraren larruan sartzea eta gauzak haren bizi-penetatik ikustea, haren ikuspuntutik, eta ez guretik. Haurraren beharrak onartu behar dira, eta, horrela, haurrak ere zureak onartzen ditu. Heztea ez da erraza; zure emozioak eta agintzeko nahiak hezi behar dituzu.

**Gauza bat da haurren lekuan jar-
tzea, eta bestea haurra defendatzea
edo haurren alde egitea. Hori ere
egin izan duzu eta garrantzitsutzat
jotzen duzu.**

Bai, haurren alde egin behar da. Ni, jaso nuen heziketagatik, justiziaren, erlijioaren eta moralaren aldekoa nintzen. Eta haurrek erakutsi zidaten behar zutena zela nik haien alde egitea. Eta, orduz geroztik, haien alde jokatu dut, baita gaiztakeriak egiten zituztenean ere. Zeren bihurrikeria bat egiten zuen umeak behar zuen norbaitek bera zen bezala onartzea eta jokatzen zuen modua onartzea. Horregatik, haurren alde egin behar da, nahiz eta horrek immorala dirudien. Eta bada beste gauza inportante bat horrekin batera: haurrentzat esanguratsuak izan behar dugu, zerbait positiboa izan behar dugu harremana daukagun ume horientzat.

**Nola lortzen da heldu esanguratsua
izatea umeentzat? Nola lor dezake
irakasle batek hori?**

Behin baino gehiagotan esan izan didate niretzat hori erraza zela, haurrekin bizi nintzelako; azkenean, haientzat aita bat bezalakoa nintzelako eta oso esanguratsua bihurtzen nintzelako. Baina Matematikako irakasle izanda eta umeak ordu batzuetan bakarrik edukita, esangura hori nola lor daitekeen galdetu izan didate, bai.

Hara, ez da denbora kontua, denborak ez digu esangura hori ematen. Horren adibide da 30 urtez umeekin bizi izan arren elkar gorrotatzen duten gurasoen eta umeen kasua. Ez da denbora, baizik eta zuk umearentzat esan nahi duzuna. Nire haurrak naufragoak ziren, eta ni heldu zezaketen ohola nintzen. Ume bat itsasoan galduta baldin badabil eta ikusten baldin baditu XVIII. mendeko luxuzko altzari bat eta erraz heltzeko moduko ohol bat, zeri helduko dio, luxuzko altzariari, katedratikoari, ala erraz heltzeko moduko oholari? Guk oholak bezalakoak izan behar dugu umeen naufragoan. Eta gure umeek nabaritu behar dute asko inporta zaizkigula. Ni arnasarik hartu ezinik baldin banago ospitalean, erizaina etorri aurreko bost minutuak egunaren gainerako

denbora guztia baino garrantzitsua-
goak dira. Oxigenozko baloia izan
behar dugu gure haurrentzat.

**Sen ona edo zentzua berreskuratzea
ere aipatu duzu, eta sen hori elkarre-
kin sentitzearekin lotzen duzu. Zer da
zehazki esan nahi duzuna?**

Sen ona berreskuratu behar dugula esan izan dudanean, batzuek arrazoi-
ketarekin, erokeriarekin eta zuhur-
tzia-rekin lotu izan dute, eta nik ez dut
hori esan nahi izan. Sen ona horixe
da: sentitzea eta ona zer den elkarre-
kin adostea.

Irakasleek eta ikasleek gero eta gau-
za gutxiago dituzte komunean, gero
eta gutxiago sentitzen dute komunean.
Gainera, kontzeptu berri bat sortu
dute: distantzia optimoa. Hezitzaileak
gainean eta hotz egon behar du. Nire
lagun Enrique Castrok egun batean
esan zuena bikaina iruditu zitzaidan:
distantziarik onena besarkada da.

Gaur egun, irakasle batek ume bat
besarkatzen badu, arriskutsua izan
daiteke. Arriskurik ez hartzeko gomen-
datzen dizuet, baina erabat makurra
den arautegiari muzin egiteko gomen-
datzen dizuet baita ere; gauza bihurtu
nahi gaituen araudia delako, biografia-
rik gabeko plaza bihurtu nahi gaituena,
erabiltzaile bihurtu nahi gaituena.

**Batzuetan, ez da erraza norbera-
ren printzipio eta balio hezitzaileak
egungo sistemaren barruan aurrera
eramatea; esku-hartze protokoloak
direla, sistemaren arauak direla,
malgutasun eza... Umeek baino
buruhauste gehiago ematera iritsi
daitezke. Zer egin egoera horretan?**

II. Mundu Gerran, alemaniarrek
Frantzia inbaditu zutenean, frantzia-
rrek hiru aukera zituzten soilik, eta,
nahiz eta adibidea izugarria izan, gaur
egun baliagarriak iruditzen zaizki-
dan aukerak dira. Lehendabizikoa,
kolaboratzailea izatea, sistemarekin
kolaboratzea; horren barruan dena
ongi joango zaizue. Bigarrena, erre-
sistentziara jotzea, sistemaren barruan
egonik, hau eta hura salatzea eta
sistematik kanpora gelditutakoan ere
salatzen jarraitzea. Kasu horretan lana
beste esparru batean bilatu beharrean
izango zarete. Eta, hirugarrena, klan-
destinitatea edo infiltrazioa. Aurreko

biak nahastu eta sabotatzea, baina
konturatu gabe. Sistema onartzea, ho-
rren barruan egotea, baina norberaren
printzipioei muzin egin gabe.

Hiru aukerak dira zilegiak: bizi
garen lekuan bizi gara, eta egoki-
tzen saiatu behar dugu, suntsitu
ez gaitzaten. Baina, mesedez, izan
zaitezte zeuok, jatoritasuna, duintasu-
na, irizpideak eta balioak dituzue-eta.
Ez utzi dena irensten, zanpatzen eta
suntsitzen duen sistema hiperkapi-
talista honek gauza bihur zaitzaten
eta duintasunik gabeko gizaki bilaka
zaitzaten.

**Inoiz galdetu al dizute etxean izan
dituzun umeekin zenbateko
arrakasta izan duzun?**

Bai, eta hasieran lekuz kanpo gera-
tzen nintzen galdera hori entzutean.
Baina galiziarrak naizenez eta galdere-
kin erantzuten badakidanez, galdera
bat asmatu nuen galdera hura saihes-
teko: zuk badaukazu familiarik eta
lagunik? Eta zenbat da zure arrakas-
taren ehunekoa zure familiarekin eta
lagunekin? Badira ehunekotan neurtu
ezin diren gauzak.

Etxean izan nituen umeek erakutsi
zidaten arrakastaren eta porrotaren
irizpidea. Gure etxean egondako ume
bat hilik agertu zen, eta gainerako
umeek hala esan zidaten: “Begira,
Enrique, Felixen bizitza infernu bat
zen hona etorri aurretik. Hemendik
alde egin ondoren ere segur aski
infernu bat izango zen. Felixek eduki
zuen bizitza polit bakarra gurekin
egon zenean izan zen. Gogoratzen
zara nola egiten zuen korri zaldien
atetik Galiziara joan ginenean?
Gogoratzen zara nola ibiltzen zen zi-
lipurdika belardian? Gogoratzen zara
nola bainatzen zen hango errekan?
Gogoratzen zara nola egiten zuen
barre eta nola gozatu zuen gurekin?
Felixek eduki zuen bizitza bakarra
gurekin eduki zuen”.

Hori entzunda, arrakastaren eta
porrotaren nire irizpidea honako hau
da gaur egun: ume batek esaten badu
nirekin hobeto dagoela ni gabe baino,
% 100eko arrakasta. Galdetu ea
zure umeak zu ezagutzearekin pozik
dauden; hala bada, gertatzen dena
gertatzen dela haien bizitzan,
% 100eko arrakasta daukazu.

GALDEIDAZU

GARAIK HAINBESTE ALDATU DIRELARIK, BERMATUTA AL DAUKA ANTZUOLAKO HERRI-ESKOLAK BERE ESKOLA-PROIEKTUA?

Erantzuna ulertzeko, behar bada, interesgarria litzateke aurretik Antzuola Herri Eskolak izandako bilakaeraren inguruko zertzelada batzuk ematea.


Tesian azaltzen den moduan, lau dira aldagai nagusiak proiektuen bizi-raupenerako: hezkuntza-komunitatea, komunitate horren barnean dauden irakasleak, ikastetxearen antolamendu-eredua eta administrazioak proiektu berritzaileak babesteko hartzen duen ardura.

80ko hamarkadan, Antzuolako hezkuntza-komunitateak herriko eskola eta ikastola batzea erabaki zuen batzar bidez. Eredu pedagogikoaren ildoak eraikitzeko, klaustro bakar bat osatu zuten. Klaustroan, aldaketaren beharra ikusi zuten, eta aldaketa hori aurrera eramateko pausoak zein izango ziren erabaki zuten. Kabinete psikopedagogikoaren bitartez ezagutu zituzten lehen ildo metodologikoak, eta, ildo horiek guraso-batzordearekin batera adostu ostean, aldaketa-prozesua abian jarri zuten. Ildo horiek jarraitzen zituen eredu metodologiko jakinik topatu ez zuten, ikastetxeak eredu propio bat eraiki behar izan zuen, kanpo-aholkulariek azalduzako teoriari kasu eginez, ikerkuntza-ekintzaren bidez eta, batez ere, eguneroko lanean bizi zituzten esperientzien inguruko hausnarketaren bidez.



ANDONI ARGUÑANO

EHUko irakaslea



Hasieratik, herrian erroturiko eskola-proiektua

Eredua hezkuntza-komunitatearekin batera eraiki izanak eskolarekiko atxikimendu-sentimendu bat sortu zuen herrian. Hasiera ez zen erraza izan, familia batzuk aldaketaren alde bazeuden ere, beste batzuek erresistentzia eta zalantza handiak azalarazi baitzituzten. Baina denbora igaro ahala eta ikastetxetik egindako lanari esker, familiak eskolara gerturatzea lortu zuten. Familiak sentitu zuten entzun egiten zituztela, proiektuaren zergatia bere osotasunean ulertu zuten eta eredu bere egin zuten. Familiak ahal zuten guztian laguntzera bultzatu zituen horrek, eta, esate baterako, familiak administrazioko arduradunekin bildu ziren irakasleak finkatzeko, ikasgeletako zaintzak egin zituzten irakasleak presta zitezten, edota, proiektuak lanean hasi zirenean, familiak beren ezagutzak eskolara eraman zituzten. Familiak izan ziren ereduaren lehen babesleak. Gainera, garai hartan ikasle zirenak gaur egun ikastetxeko ikasle diren haurren familiak dira orain; beraz, eredu babesten duten agenteak izaten jarraitzen dute. Denboraren poderioz, hezkuntza-eredua herriko ondare kultural bihurtu da.

Irakasleen egoera desberdina da. Arestian aipatu den moduan, komunitateak ezarritako xedeetara iriste-



ko, irakasleek eredu berri bat eraiki behar izan zuten hausnarketa bidez. Hori ahalbidezko, derrigorrezko aldagaia da irakasle identitatea elkarrekin garatzea, eta, identitate hori elkarrekin garatzeko, ezinbestekoa da hausnarketa kolektiboak eginez luze aritzea. Hausnarketa bidez eredu bat garatzearen onura guztiak jaso daitezten, lantalde finko baten beharra dauka eskolak. Hausnarketa kolektiboak oso garrantzitsuak izan dira elkarren arteko konfiantza eskuratzeko, helburuak eta ideiak bateratzeko, beldurrak partekatuzko eta elkarri laguntzeko. Elkarrekiko zaintza oso garrantzitsua izan da beti, zailtasunen aurrean babestuta sentiarazi ditu, eta aurrera egitea ahalbidetu die horrek. Irakasleen esanetan, elkarri aktiboki entzuteak garrantzi handia izan du.

Balio berdinak baina zailtasun berriak

Gaur egun, balio berdinak dituzten arren, zailtasun berriak agertu dira. Irakasle berriak horrelako proiektu batean kokatzeko, ezinbesteko aldagaia da denbora. Iristen diren irakasleek ikastetxe honen ezaugarriak ezagutu behar dituzte lehendabizi. Esaterako, irakasleek betetzen duten gidariorola ulertu eta barnerratu behar dute; ikasleen desira, ideia eta asmoei kasu eginez lan egin behar dute, ikasleen interesetatik abiatzen den proiektua curriculumarekin lotzen ikasi behar dute, testuliburu batek eman dezakeen segurtasunik gabe

lan egitera ohitu behar dute... eta hori ez da egun batetik bestera lortzen, horrek denbora behar du.

Urte askoan, irakasle berriei proposamenak egiten utziz, beren ideiak entzunez, parte hartzerantz animatuz eta beren beldurrak partekatuz, proiektuaren parte sentitzea lortu zuten. Gaur egun, lan berdina egiten jarraitzen duten arren, irakasleak batetik bestera ibiltzen direnez, irakasle berriek denbora-tarte laburrak pasatzen dituzte ikastetxean. Ez dute proiektuaren parte sentitzeko denbora nahikorik izaten. Denbora dutenek eta ohitu eta geratu nahi dutenek ere, urte amaieran, ez dute ikastetxean jarraitzeko aukerarik izaten. Hori guztia gutxi balitz bezala, proiektua hasi zuen irakasle talde egonkor hura erretiroa hartzen hasia da, eta, horren ondorioz, geroz eta esperientziadun irakasle gutxiago dago irakasle berriak prestatzeko.

Egoera horri aurre egiteko antolaketa-estrategia batzuk garatu zituzten irakasleek bere garaian. Esaterako, esperientzia handiko hainbat irakasle proiektuetako zein zirkulazio libreko aholkulari moduan jarduten dira. Haien arduratu izan dira irakasle berriak prestatzeaz, baina diote dagoeneko gailendu egin dituela irakasle esperientziadun eta berrien arteko proportzioak.

Egoera horren aurrean, administrazioa da zuzeneko eskumena duen entitate bakarra. Proiektua hasi zen urteetan, familien presioari esker eta irakasleek beharrezko pausoak eman

Kontuan izan behar da Antzuolako eredu ikastetxean lan egiten duen komunitateak eratu duela. Eredua bera, pertsonak eta testuinguru soziala aldatu den heinean, ñabardura berriak hartuz joan da. Beraz, hezkuntza-eredu berbera mantentzea ezinezkoa dela esango nuke. Funtsezko printzipioak betetzen dituen eredu mantentzea izango da erronka. Irakasleak finkatuz gero, hezkuntza-ideiari eutsiko zaio, egin den lan guztia ez da ezerezean geldituko, baina eredu aldatu egingo da halabeharrez. Ez da hobea ez eta okerragoa izango, baina desberdina izango da.

GALDEIDAZU: ANTZUOLAKO ESKOLA-PROIEKTUAREN ETORKIZUNA

ondoren (oposizioak atera, lekualdatze-lehiaketetan parte hartu ...), administrazioak eskolako lantaldea finkatu zuen. Antzuolako proiektua babestu nahi bada, beharrezkoa da hango irakasleen egoera egonkortzea. Antzuolan altxor paregabea daukagu, egindako lana berresten duten bi doktoretza-tesi argitaratu dira, badira gutxienez haien praktika onen inguruko hamar artikuluko zientifiko, hezkuntza-praktika onen erreferente bat dira nazioarte-mailan.

2019ko irailaren 24an, Eusko Jaurlaritzako Legebiltzarrean, EH Bilduren, EAJren, Podemosen, PSOEn eta PPren aldeko bozkek, Antzuola Herri Eskolako proiektua babestea erabaki zen; ez dakigu zein modutan pentsatu duten babestea, baina beharrezkoa izango da administrazioari alde izatea. Berrikuntzak hasi eta mantentzeko talde iraunkorren beharra ez da Antzuolako ezaugarri eskusiboa. Berrikuntzan diharduten ikastetxe guztien beharra da. Baina behar horrek presa handia du Antzuolan, 2023 urterako ez baita geratuko 10 urte edo gehiagoko esperientzia duen irakaslerik.

Etorkizunari begira,

aldagai batzuk bermatuak ditu

Eredua bermatzeko beharrezkoak diren aldagaiak aztertu eta egungo egoera apur bat azaldu ostean, eta etorkizuna aurreikustea oso zaila dela kontuan izanik, hasieran planteatutako galderari erantzuten saiatuko naiz.

Antzuolako Hezkuntza Proiektuak etorkizun oparoa izateko aldagai batzuk bermatuta ditu: familiek hezkuntza-eredua ulertzen eta babesten dute, bada eredua ondo ezagutzen duen irakasle talde gazte bat, eta aspaldian zehaztu zuten antolaketa-ereduaren bitartez ezagutza-transmisio hori bermadaiteke. Baina aldagai guztiak elkarren artean lotuta daude, eta azken aldagai bat ezinbestekoa da orain bizi duten egoeran: transmisio hori bultzatu ahal izateko talde egonkor eta sendo bat.

Kontuan izan behar da Antzuolako eredua ikastetxean lan egiten duen komunitateak eratu duela. Eredua




2003ko apirilarean Antzuolako herri-eskolari eskaini zion HIK Hasik monografikoa: *Ikaslearen osotasunari erantzuteko proposamen bat: proiektuak izenekoa.*

bera, pertsonak eta testuinguru soziala aldatu den heinean, ñabardura berriak hartuz joan da. Beraz, hezkuntza-eredu berbera mantentzea ezinezkoa dela esango nuke. Funtsuzko printzipioak betetzen dituen eredua mantentzea izango da erronka.

Irakasleak finkatuz gero, hezkuntza-ideiari eutsiko zaio, egin den lan guztia ez da ezerezean geldituko, baina eredua aldatu egingo da halaber. Ez da hobea ez eta okerragoa izango, baina desberdina izango da.

ARGITALPENAK



OSABA OTSO
Xose Ballesteros

PAMIELA- KALANDRAKA

Egokitzapen honek Italiako Frioleko ipuin tradizional batean du oinarria. Testu politikoki ez zuzena da, ume irakurleak “ohartarazteko ipuinen” generoan sartzen dituena. Kontakizunak erritmo bizia dauka, eta tonu jostagarria, eta istorioa tentsioa hartzen doa bukaeran ustekabeko bat izan arte.




ZERGATIK EGITEN DU DISTIRA EGUZKIAK?

Katie Daynes eta Christine Pym

ELKAR

Haurrak “zergatik?” eta “zergatik?” galdezka hasten direnean eskaintzeko liburua da hau: “Zergatik egiten du distira Eguzkiak? Zerez dago eginda? Eta nora joaten da gauean?” Natura ezagutzeko hamaika erantzun aurkituko ditugu irudi ederrez beteriko leihatiladun kartoizko liburu honetan.




MATEMATIKETAKO ETA INFORMATIKAKO APARTEKO ISTORIOAK KOMIKIAN

Nesim Fintz- Han-Mi Kim

SAURE


Matematikari aurpegia jartzea ez da soilik matematikari handien emaitza garrantzitsuenak ezagutzea, baizik eta baita haiek testuinguruan kokatzea ere. Historiaren azalpen labur honetan egile garrantzitsuenak ezagutuko dituzte gaztetxoek.



BILDUMA MAT
Hainbat arteen

TIPI

Tipi elkarteak eskola-espazioen eraldaketa parte-hartzaileerako *Elkartoki* izeneko programa garatzen daromatzan bost urte luzeetan lortutako esperientzian oinarritutako prozedura, aholkuak eta ikasketak batzen dituen liburua argitaratu du. Eskoletako jolasokiak ikastetxeetako hezkuntza proiektuko atal funtsezko bilakatzen laguntzeko lana da.



BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA, 113. ZENBAKIA

Hainbat arteen

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Euskal soziolinguistika arloko ikerketa-sariei eskaini dio BAT aldizkariak urteko laugarren alea. Zenbakia lehiaketaren lehen saria jaso duen *Ebaluazioa: euskararen aldeko ekimenen labirintoan orientatzeko gakoa* lanak zabaltzen du, Miguel Galicia Lambarri irakasleak eginikoak.



JAKIN 236
Askoren arteen

JAKIN

Xabier Amuriza idazle, bertsolari eta ekintzailearen bizipenak jaso ditu Jakinen 236. zenbakiko Historia bizia sailak. Modu oso berezian, gainera, Miren Amuriza alabarekin aurrez aurre. Amuriza Amurizaren aurrean, beraz. Amuriza aita eta Amuriza alaba, elkari begira: bi belaun, bi bertsolari, bi idazle; adinekoa eta gaztea, gizona eta emakumea.

PROPOSAMENA

Eunateko Santa Maria eliza


Eunate: arteari, historiari eta bakeari irekitako ateak

Artea eta historia bizitzeko parada eskaintzen du Eunateko Santa Maria elizak, eta oroz gain, isiltasunera, barnetasunera eta bakera gonbidatzen du. Guiartek DBHko lehen ziklora egokitutako bisita gidatuak antolatzen ditu, material interaktibo didaktikoekin.

Lautada baten erdian, hortxe, erdi bakarrik, arreta osoa bereganatzen du Eunateko Santa Maria elizak, Gares eta Arrizabalaga arteko errepidean Robo ibaiaren ertzean. Donejakue bidean Somportetik Orreagara zetozen bi bidetxurrek bat egiten zuten puntutik oso gertu. Paisajeari irekia, berdez inguratua uda ez bada, eta ekiloreen urre kolorez inguratua, ekainetik irailera. Xumea bezain originala, berezia bezain misteriotsua, bisita asebetegarri bat eskaintzen du Eunateko Santa Maria elizak, Muruzabalen (Nafarroa).

Artea eta historia bizitzeko parada eskaintzen du zelaiaren erdian, oin oktogonalaren gainean zutitzen den tenplu erromaniko honek. Liburutatik atera eta historia, arte eta arkitektura lezio ederra barnebiltzen baititu.

Santxo Azkarraren aginte garaian, 1170-1210. urte bitartean eraikia izan zela ziurtatua dagoen arren, eliza honen jatorria misterioz inguratua dago gaurdaino. Historialari batzuen arabera,



tenplarioen obra izan zen, Jerusalemgo Hilobi Santuaren elizaren oinplanoaren antz handia baitu Eunatekoak, hain zuzen ere, baina ez da aurkitu uste horri eusten dion frogarik ez Nafarroan ez Tenplarioen artxibategietan. Dokumentuek tenplarioekin ez baina Jerusalemgo beste giza talde batekin lotzen dute basiliza: Jerusalemgo San Joaneko zaldunekin hain zuzen ere, Eunateko

elizaren sorburuetan giza talde horrekin harremanak izan zirela iradokitzen baitute agirik. Ahoz aho, menderik mende transmititu den ustearen arabera, berriz, erregina edo andre garrantzitsu batek aginduriko obra izan zen, Santxa andrea izenekoarena, eta legendak dioenaren arabera, andre haren gorpua dago harrien azpian. Tenplarioek, San Joaneko zaldunek, erreginak... jatorri handinahitsuek

hauspotzen dute Eunateko basilizaren misterioa, baina gauza jakina da inguruko herritarrentzako gune berezia zela oso lautada hori, mendeetan zehar Izarbeibarreko herri-batzarrak Eunateko atariko klaustroan egiten baitzituzten.

Jatorria bata zein beste izan, erabilera ugari izan ditu historian zehar Eunateko elizak: erromesen ospitale izan da, hilobi ere bai (kanpoko arkuteriaren artean erromesen eta jende arruntaren hilobiak agertu baitira), kristauen kulturako eliza, baina baita indar esoterikoetan sinesten dutenen santutegi teluriko ere. Erromesei bidea argitzen zien faroa izan dela ere esaten da, nahiz eta faroa egon zitekeen tokian, gaur egun ikusten den horma-kanpaia jarri zuten geroago.

Balio artistikoari eta arkitektonikoari dagokienez, zortzi ertzeko oinak eta klaustroak egiten dute berezi estilo erromaniko berantiarreko eliza hau. Oin oktagonala ez da harmoniatsua, horma batean abside pentagonal bat erantsia baitu eta hormek leihoitsuak baitituzte. Bi ate nagusi ditu elizak, bata bideari irekia, oso dekoratua, eta, bestea, iparralderantza, xumeagoa. 33 arkuk inguratzen dute eta arkuen kapitelak ere esanguratsuak dira: landarezarekin apainduta daude, animalia eta gizakien figura xume batzuk ere badaude, dantzariak, musikariak, aingeru tronpetadunak


edota munstroak zizelkatu zituzten harginek kapituletan. Horrez gain, eta Donejakue Bidean nahiko ohikoa den eran, kutsu musulman agerikoa du arkitekturak.

Isiltasunerako gonbita

Kokalekuak eta jatorriak misterioa iradokitzen badute, elizaren barrualdeak bakera deitzen du. Galeriak lasai zeharkatzea eskatzen du, tenplu barruan sartu aurretik. Eliza barruan iluntasunak barnetasunera gonbidatzen du. Gaur gizartean nola ikas-tetxeetan askotan hain zaila egiten den isiltasuna, barnetasuna eta bakea sumatzen dira Eunatean. Misterioak misterio, istorioak istorio, isiltasunerako eraikia izan zen basilizak bederatziko mendeko geroago indarrez eusten dio bere egitekoari: isiltasuna, barnetasuna eta bakea transmititzeari.

Eunateko elizak dituen balio horiek guztiek transmititzeko bisita gidatuak eskaintzen ditu Guiartek, DBHko lehen zikloko curriculumari egokiturik. Arkitektura, Donejakue Bidea, arte erromanikoa eta beste hainbat gai lantzen dituzte bisitetan material didaktiko interaktiboekin, hala nola, maketekin, Erdi Aroko erremintekin, jantziekin eta bestelako materialekin.

Bisita osatzeko, Done Jakue bideari jarraituz, bost kilometrora dago Gares herria, eta historia eta istorio ugari barnebiltzen dituzten kaleetan barrena egun aparta pasa



Eunateko Santa Maria eliza

Kokapena

Done Jakue bidean
Muruzabal herria, Nafarroa

Bisita gidatuak:

- DBHko lehenengo zikloko curriculumera egokitutako 45 minutuko bisitak, euskaraz eta gaztelaniaz. Horrez gain, ikasle bakoitzak gida didaktiko bat jasotzen du.
- Lantzen diren gaiak: arkitektura, historia, Done Jakue bidea...

Harremanetarako:

- www.guiartenavarra.com
- Telf: 948 74 12 73

liteke Nafarroan. Andeloseko hiri erromatarra Muruzabaletik 18 kilometrora gelditzen da, eta berau ere Guiartek eskaintzen duen bisita gidatuaren bidez ezagutu liteke. Halaber, Erriberriko jauregia 35 kilometroa gelditzen da eta enpresa berberak kudeatzen ditu eskola-bisitak.



ATZEKO ATETIK



ASPERTZEKO BETARIK GABE

MIREN GORROTXATEGI IDAZLEA

Txikitan, irakasle izatera jolasten nintzen. Ikastolako gaiak erreparatzeko-eta, alegiazko ikasleak asmatu, eta sukaldean batetik bestera ibiltzen nintzen, buruz ikasitakoak haiei askatuz, irakasleek gelan egiten ziguten gisan. Bagenuen etxean ikasteko gela bat, baina gorroto nuen: mahai beltz handi bat, piano beltz handi baten ondoan. Han, aspertu egiten nintzen. Ihes egiten zidan buruak ikasmahaiaren aurrean zegoen munduko mapara, eta, ikasi beharreko paragrafoen artean, maparen gainazaletik bidaiatzen nuen, lekuak, tribuak, hizkuntzak, usainak irudikatuz. Far Westera iritsi berri zen familia bateko alaba izan nintekeen, edo itsasoak uharte bakarti batera eramandako naufragoa. Oheratutakoan, berdin: logurarik ez bazetorren, istorioak ziren etortzen zirenak, bata bestearen atzetik; neure film propioaren fotogramak burmuineko pantaila betetzen zuten.

Sasoi hartan, askotan aspertzen ginen. Denbora sobera genuen aspertzeko. Ikastolan, etxean, musika-eskolan, telebistan zeuden kanal urrien aurrean... Nik gorroto nuen sentazio hura, aspertzearena.

Ez ginen kontziente, eta uste dut ez garela oraindik, aspertzen garen une horietantxe ernetzen direla sormenerako haziak. Emankorrak direla oso tarte huts horiek. Gaur egun, ordea, aspertzeko momentuak pantailaz bete ditugu. Eta ez dago istorioak sortu beharrik: istorioak guk kontsumitzeko prest daude gure pantailetan, aspertzen hasten garen lehen segundorako. Zoragarria da nire modura istorio-gosez bizi garenontzat. Baina ze prezio dauka horrek? Ez dago ia aspertzeko eremurik, ez pantailarik gabeko gunerik. Ez etxe, ez taberna, ez autobus... Ezin zaie ihes egin.

Burura datorkit agian eskola izan litekeela gaur egun ikasleak lasai asper daitezkeen leku bakarrenetakoa — pantailak itzalita dauden bitartean — . Baina zer eta, sormena aske utzi ordez, ikasleei hegoak ebakitzen dizkiegu. “Dizkiegu” diot; izan ere, sukaldean atzera-aurrera ibiltzen zen haur hura irakasle bihurtu baita, bizitzako hainbat atzera-aurrera eta itzulipurdiren ondoren. Eskola aldatu da zertxobait gure ikasle garaitik, baina ez gehiegi. Bai: ikasleek aspertuta jarraitzen dute. Eta, ez: sormenak ez du oraindik ikasgelan lekurik ia. Ikasleei

zerbait sortzeko eskatzen zaienean, irudimena erabiltzeko esaten diedanean, “nik ez dut irudimenik” eta antzekoak entzuten ditut. Izutu egiten ditu ezezaguna den horretara jauzi egiteak, normala denez. Ez baitaude erabiltzen ohituta. Baina jauzi egitera ausartzen direnean... magia gertatzen da. Esperantza handirik gabe lurperatu zenuen landare-hazia ernetzen hasten denean bezala, poza eta harrotasuna gailentzen dira ikasleengan ere. Nik ezer esaterako, inguruko ikaskide guztiei erakutsia izaten dute aginduriko sormen-lana.

Pena da hain gutxi erabiltzea gogaitutako ikasle taldearen ahalmena. Ikasgelak digitalizatzean tematuta gauden honetan, 180 gradutako bira eman beharko genukeela uste dut, eta ahalmen sortzailearen aldeko apustu irmoa egin. Erronka ezezagunez beterik datorkigun etorkizunaren aurrean, sormenak desberdinduko ditu gure ikasleak, ez sagua erabiltzeko trebeziak. Lant dezagun, beraz, irudimena. Atera diezaiogun zukua ikasleen sormenari. Euren sortze-gaitasuna irakasleok ikasleak gogaitzeko daukagun gaitasunarekiko proportzionala izan daiteke eta.



Burdin Harana Legazpi - Gipuzkoa

- Talde handientzako prezio bereziak.
- Bisita ingelesez egin daiteke.
- Mirandaolako Burdinola martxan, olapintxoarekin jartzeko aukera.

Mirandaolako Burdinola.

Fabrika.

Artzaitxo egunak.

Aiton-amonen eskola.

Mirandaolako Burdinola martxan!!

Historian atzera egingo dugu eta Erdi Arotik Industrializaziora Euskal Herrian burdinak izan duen garrantziaz jabetuko gara.

Hiru gune

1 BURDINOLEN IBILBIDEA, XI-XIX MENDERAINO.

Aizkorri-Aratz parke Naturalaren magalean, UR-OLA ibaia jaoitzen da, Burdin Haranaren ardatz nagusia. Bertan olagizonak eta baserritarrak bizi izan dira.

- Artzaintzaren Ekomuseoa
- Ogiaren Txokoa

2 MIRANDAOLAKO PARKEAN, XIX. MENDERAINO.

Aurre industrializazioan murgilduko gara, Mirandaolako Burdinola martxan ikusiz. Teknologia, energiak, lanbideak eta bestelako gaiak lantzen ditugu.

- Euskal Burdinaren Museoa
- Mirandaolako Burdinola

3 LANGILEEN IBILBIDEA, IRAULTZA INDUSTRIALA.

Burdinola zaharrak lantegi bihurtuko dira, olagizonak langile, eta baserri asko langileen etxebizitza. 1950. urtean murgilduko gara, frankismo garaiko herri industrializatu batetan.

- Fabrika
- 1950eko eskola eta etxebizitza
- Chillida Lantoki - Artea



Maila guztiei egokitutako tailer eta bisitak. Mirandaolako Parkean, merenderoa, frontoia, haur-parkea, pista jokoa, eta beste daude. Herri-gunean, estalitako haur parkea eta bazkaltzeko gune itxia.

www.lenbur.com - 685 76 83 07 - 645 72 38 37 - ikerketa@lenbur.com

Atsedena formazioa eta zaintza

Esperientzia berri bat Arantzazun, **hik hasiren** eskutik

Pentsa ezazu egun batzuk har ditzakezula atsedean hartzeko. Eguneroko gainkarga, eskakizunak eta eskolako erritmoa utzi eta gelditu, arnasa sakon hartu eta unean unekoari arreta jartzeko aukera duzula. **Atsedena**.

Gainera, erlaxatzeko, kontzentratzeko eta momentuan kokatzeko hainbat teknika eta bitarteko erakusten dizkizula aditu batek, gero horiek zuk zeure bizitzan nahiz gelan ikasleekin erabiltzeko. **Formazioa**.

Egun horiek zeure burua zaintzeko egunak izan daitezke, zu zeu hobeto egoteko eta ingurukoekin gusturako aritzeko. **Zaintza**.

Atsedena, formazioa eta zaintza.
Hirurak Arantzazun,
Hik Hasiren eskutik.



Egunak: apirilaren 4tik 8ra

Irakaslea: Marina Pintos (*Orain* eta *Izan* diskoen egilea)

Lekua: Asis topagunea, Arantzazu

Egitarauaren barruan: yoga, ibilaldi kontzientekak, erlaxazio eta kontzentrazio teknikak eskolarako, emozioen kudeaketa, meditazioa, kontzertu meditatiboa, etxeko janaria...

Izen-ematea: otsailaren 21etik martxoaren 17ra
(kopuru mugatua)

Informazio gehiago: www.hikhasi.eus